# Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Igorreko 1go Udal Plana

2011_2014

Idoia Legarreta Solatxi
Matxalen Legarreta
Elixabete Imaz Martinez

1. SARRERA 2

2. JUSTIFIKAZIOA ETA MARKO LEGALA 5

3. METODOLOGIA 12

4. BERDINTASUN PLANAREN EZAUGARRIAK ETA EGITURA 18

a. Planaren ezaugarriak 19
b. Planaren kudeaketa egiturak 21
c. Planaren egitura 23

5. ESKU-HARTZEA 30

d. Udala: Neurri Orokorrak 31
e. Kultura, Euskara eta Kirol arloa. 50
f. Hezkuntza 61
g. Lana 79
h. Gizarteratzea 89
i. Hirigintza 103

4. ERANSKINAK 114

4.1 Eranskina 115
4.2 Eranskina 116

# 1.Sarrera

Ondoren aurkezten dugun dokumentua Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Plana da (2010-2013), Igorreko Udalak 2009ko ekainean berdintasunaren aldeko apustuan bere gain hartutako konpromisoaren emaitza.

Instituzio publikoek betebehar garrantzitsua dute emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzerako orduan, eta horrela adierazten dute lege eta araudi desberdinek. Udal administrazio publikoek, halaber, herritarren eguneroko beharrizan eta interesetatik hurbilen dauden erakunde publikoak izanik, erantzukizun esanguratsua dute lan honetan. Igorreko Udalak ere, era honetako esku-hartzea egituratu eta planifikatuko duen dokumentua egitea erabaki du: Lehen Berdintasun Plana. Etorkizunean Udalak berdintasunaren lorpenerako jarraituko dituen estrategiak eta abian jarriko dituen neurriak definitzen ditu. Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Plan hau, Idoia Legarreta Solatxi, Matxalen Legarreta Iza eta Elixabete Imaz Martinezek osatzen dugun ikerketa taldeak (aurrerantzean, lantalde teknikoa) burutu dugu.

Plana zehazten hasi aurretik, udalerriko emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa burutu genuen 2009-2010 urte bitartean. Diagnostikoan udalerriko hamar esparru desberdin aztertu genituen: biztanleriaren egitura soziodemografikoa; hirigintza eta espazioaren antolaketa; Udal administrazioa; jarduera ekonomikoa; hezkuntza eta hezkidetza; familia eta zaintza; osasuna; parte-hartzea; aisialdia; kultura eta kirola; eta azkenik, bazterketa soziala eta gizarteratzea. Diagnostikoak helburu bikoitza bete du. Alde batetik, aipatutako eremuetan emakumeek eta gizonezkoek bizi duten egoera ezagutuz, batzuk eta besteek dituzten beharrizan desberdinen berri eskaintzen digu. Bestetik, eta aurrekoarekin loturik, berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa bultzatu eta berdintasun gaiak lantzeko parte-hartze espazioak sortzea lortu du, Lehen Planerako mapa osotzeko eta esku-hartzerako aukera eta lehentasunak ezartzeko bideak jarriz.

Aipatu berri dugun lez, eskuartean duzun dokumentua Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Plana da

(2010-2013). Bost ataletan dago banaturik. Lehenengo atalak, Berdintasun Planen justifikazioa eta marko legala biltzen ditu; bigarrenak, Plana definitzeko jarraitutako metodologia eta lan prozedura; hirugarrenak, Planaren ezaugarriak eta egitura; eta laugarrenak, Igorreko Udalak jarraituko dituen berdintasun politikak zeintzuk izango diren azaltzen digu.

# 2. Justifikazio eta marko legala

Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna zein sexuaren araberako bereizketa oro debekatzen duten lege eta arau juridiko ugari sortu dira azken urteetan nazioarte, Europa, estatu eta udal mailan. Nazio Batuetako Erakundeak 1979an emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aldarrikatu zuen: "printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatuz". Hortik aurrera, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna zein sexuaren araberako bereizketa oro debekatzen duen lege eta arau juridiko ugari sortu dituzte eremu desberdinetan eskuhartzen duten erakundeek: bai nazioartean, Europan, Estatuan, Autonomi Erkidegoan eta baita udalerrian ere.

Emakume eta gizonen berdintasun printzipioa Estatu gehienetako araudi eta legedietan bilduta badago ere, oraindik orain, gizarteko eremu desberdinetan, begi-bistakoa da ez dagoela benetako berdintasunik, hau da, berdintasun errealik. Hau horrela izanda, eta berdintasun formala bermatu arren ezberdintasun egoerak desagertzen ez direla oharturik, Beijing-en 1995ean burututako IV. Mundu Mailako Konferentziak berdintasun politikak definitu eta inplementatzeko beharrizana aldarrikatzen du. Une horretatik aurrera eta, batez ere, 1999an Amsterdamgo Ituna indarrean jartzerekin batera, Europar Batasuneko kide diren Estatuek diseinatu eta abian jartzen duten politika eta ekintza orotan aintzat hartu behar dute emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta genero berdintasuna bultzatzeko konpromisoa. Beste era batera esanda, Europar Batasuneko kide diren Estatuek, berdintasun formala, berdintasun erreala bihurtzera bideratutako politika eta ekintzak inplementatu behar dituzte.

Europar Batasunak instituzioei ezarritako betekizun hau EAE-n bete ahal izateko,Eusko Lege Biltzarrak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako lege autonomikoa sortzen du 2005ean. Lege honetan, argi uzten du udalek berdintasun politiketan duten erantzukizuna. Beraz, esku artean daukagun Plan honek erakunde eta legeen babesa dauka. Honako hauek dira Plana egiterako orduan kontuan hartu

ditugun erreferentziazko lege, arau, zein dokumentuak:

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII Legegintzaldiko jarraibideak (2006).
Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2006).
3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.

Lege, arau eta dokumentu guzti hauek udal administrazioek emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioarekiko dauzkaten erantzukizun, betebehar eta eskumenak ezartzen dituzte.

7/1985 Legea, Apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak[1] Udalen eskumenei buruzko kapituluan (3. kapitulua), argi azaltzen du tokiko administrazioek badutela berdintasunaren alde jarduteko ahalmena. Kapitulu horretako 28. Artikuluan zehazten denaren arabera: “udalerriek beste administrazio publikoen jarduerekiko osagarriak diren jarduerak burutu ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumenaren babesari buruzkoak”.

4/2005 Legea, Otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa[2] . Lege honen izatezko arrazoi nagusia, genero ikuspegia administrazio publikoko esparru guztietan txertatzea da. Aurreko hiru planen bilakaera eta aurrerabidearen ondorioa da, berdintasun politiketan sakontzeko ezinbesteko lanabesa. Genero ikuspegia administrazioko esku-hartze eremu guztietan txertatzeko, lege honek berdintasunaren arloan administrazioko esparru konkretu bakoitzari dagozkion funtzioak zehazten ditu, beti ere, Autonomia Estatutuko 10.39.artikuluaren, Lurralde Historikoen Legearen eta 7 c)

[1] http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?colección=iberlex&id=1985/05392

[2] http://www.emakunde.es/images/upload/LeyIO_e.pdf

2 artikuluaren eta estatutuko arauen (9.2. art) eta EB-koen (Europar Batasunaren Itunaren 3.02) ondoriozko eskumenak oinarritzat hartuz. Horiek guztiek behartu egiten dituzte herri botereak berdintasunerako baldintzak sustatzera eta horretarako dauden oztopoak desagerrarazteko bitartekoak jartzera. Gainera, herri botereen politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatu beharra dagoela zehazten du "Gizon eta emakumeen berdintasunerako planak" izeneko II. tituluaren 15. artikuluak:

"Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak edo programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorretan ezarritako gidalerroekin eta esku hartzeko ildoekin bat etorriz, eta ondorengoa bermatuko dute, beharrezko bitarteko material eta ekonomikoak eta giza bitartekoak erabiliz: foru aldundietako sailetan, erakunde autonomoetan eta menpeko beste erakunde publikoetan edo horiekin lotutakoetan eraginkortasunez eta koordinatuta betearaztea planetan eta legean ezarritako neurriak. Udalek banaka, edo mankomunitate gisa zein espresuki horretarako eratuko diren mankomunitateetan eraman ditzake aurrera jarduera horiek. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta foru aldundien diru-laguntza izango dute, bereziki, ekonomi eta kudeaketarako ahalmen txikiena dutenek".

Eginkizun honetan udalek duten betebeharrerako dituzten eskumenei dagokienez, I. tituluko 7. artikuluan honako eginkizun hau agintzen zaio tokiko administrazioari:

1.–Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udalmankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

a) Egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea genero ikuspegia administrazioan txertatzeko.
b) Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki mailan.

c) Toki mailako programazioa gobernuaren plangintza orokorraren eremuan, eta foru aldundien programazioa.

d) Estatistika eguneratuak egokitzea eta gordetzea, toki-mailan esku hartzeko eremuetan gizon eta emakumeen egoera desberdina ezagutzea ahalbidetuko duten estatistikak, hain zuzen ere.

e) Emakumeek eta gizonek toki mailan duten egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

f) Gizon eta emakumeen desberdintasunaz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriez jabearazteko jarduerak egitea toki-mailan.

g) Tokiko araudiaren jarraipena egitea, baita gizon eta emakumeen berdintasunaren printzipioaren araberako aplikazioa ere.

h) Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko bitartekoez eta programez informatzea eta bideratzea herritarrak, baita diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialen jabetza bermatzeko programez edo zerbitzuez ere.

i) Programak edo zerbitzuak ematea, diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialez jabetzea bermatzeko asmoz, betiere zerbitzuen izaera dela eta, udal mailan eman behar badira.

j) Gizon eta emakumeen bizitza pertsonala eta familia eta lana bateratzeko gizarte-komunitateko bitartekoak eta zerbitzuak ezartzea, betiere, zerbitzuen izaera dela eta, udal mailan eman behar badira.

k) Erlazioak eta parte hartzeko eta lankidetzarako bideak ezartzea beste erakunde publikoekin eta pribatuekin, baldin eta beren helburuen edo eginkizunen arabera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna toki-mailan lortzea bultzatzen badute.

l) Toki-mailan gertatzen diren sexu-diskriminazioak detektatzea eta horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.

m) Haien eskumenen barruan agindu dakiekeen beste edozein eginkizun.

Emakundek 2006an onetsi eta argitaratutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak[3] , berdintasunaren arloan eu-

[3] www.emakunde.es/images/upload/IVPI_c.pdf

skal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak biltzen ditu. Planaren ekarpen garrantzitsuena, administrazioetako jardunean berdintasuna zeharka lantzeko jarraibideak zehaztea da (Otsailaren 18ko 4/2005ean onetsitako legean ezarritakoari jarraituz). Beraz, udal administrazioek berdintasun politikak diseinatu eta garatzerakoan kontuan hartu beharreko dokumentua da hau. Oinarrizko lau funtzio betetzen ditu planak botere publikoen jarduna bideratzeko eginkizunean:

Botere publikoen jarduna arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea.

Botere eta administrazio publikoen jardunetan genero ikuspegia barneratzeko neurriak arautzea.

Esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurrien eginkizun eratzailea izatea.

Oinarrizko edukiak definitzea.

EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako IV. Planak ekintza positiboa eta genero-ikuspegiaren (mainstreaming-a) txertaketa uztartzen ditu. Horretarako, IV. Planak berdintasun politiken norabidea definitzen duten lau ardatz estrategiko definitzen ditu, berdintasunaren arloan esku-hartzeko zutabeak zehazten dituztenak: mainstreaming-a, jabetza eta gizarte-politikan parte hartzea, baterako erantzukizuna eta bateratzea, eta emakumeen kontrako indarkeria. Honetaz gain, aipatu berri ditugun lau ardatzetatik eratortzen diren esku-hartzeak, zeharka, ahalik eta alor gehienetan diseinatu, ezarri eta betearazteko eremu instituzional nagusiak ere atzematen ditu legeak. Hauek dira: kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna, hirigintza eta ingurumena. Aldi berean, datozen urteetan esparru hauetan landuko diren berdintasunerako politiken arloko lehentasunak zehazten ditu ardatz estrategikoetan.

Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizimodurako Europako Gutuna (2006), Europako udalerri eta eskualdeetako gobernuei zuzendua dago “Europako tokiko eta erregioko gobernuei zuzendurik dago eta gutuna sinatzera gonbidatzen zaie, emakumeen eta gizonen

berdintasunaren printzipioarekiko jendaurreko jarrera agerrarazi eta Gutunean zehazturiko konpromisoak beraien herrialdeetan aplika ditzaten". Izan ere, tokiko zein eskualdeetako administrazioak, herritarrengandik hurbilen dauden gobernu organoak izanik "bere horretan dirauten ezberdintasunei aurre egin eta egiazko berdintasunezko gizartea sustatzeko esku-hartze maila egokienak dira". EUDEL (EAEko Udalerrien Elkartea) ekimen honen bazkideetako bat da eta, ondorioz, berdintasunarekiko duten konpromisoa berresteko, gutuna sinatu duen geroz eta udal gehiago aurki dezakegu gure testuinguru hurbilean.

3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako[4] .. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun formala dagoen arren, eta horrela agertzen bada konstituzioan ere (14 artikulua), "berdintasun formalak legearen aurrean duen aintzatespen osoa aurrerapauso erabakigarria izan den arren, ez da nahikoa izan" . Izan ere, Konstituzioaren arabera, Estatua da eskubide konstituzionalak betez pertsona guztien berdintasuna bermatuko duten oinarrizko baldintzak arautu behar dituena. Lege honen justifikazioan azaltzen denez, ezinbestekoa da diskriminazio egoerei (zuzenekoak zein zeharkakoak) aurre egin, emakume eta gizonen berdintasun erreala sustatu eta eragozpen zein estereotipo sozialak desagerraraztea ahalbidetuko duen arau jarduera definitzea. Testuinguru honetan, Legeak Estatuaren eskumen guztien arauketa modu zehatzagoan garatzen du. Horrela udalek berdintasun errealaren lorpenean duten betebeharra zehazten da 21.1 artikuluan honako hau esanez "tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako Herri Administrazioei lagunduko diete zentzu honetan".

[4]http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2007/06115

# 3.Metodologia

Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Plana berdintasunaren inguruan sortu den eztabaida eta hausnarketa prozesua islatzen duen dokumentua dugu. 2009ko ekainean, diagnostikoaren bitartez bertako emakume eta gizonek bizi dituzten beharrizan eta egoera ezberdinei buruzko hausnarketa piztu genuen. Planaren elaborazio prozesuarekin, berriz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko ezinbestekoak diren esku-hartzeak eztabaidatu eta definitu ditugu. Hausnarketa eta eztabaida prozesu honekin, berdintasunaren aldeko konpromiso eta elkarlana bultzatzen saiatu gara. Beraz, dokumentu honek berdintasunaren alde hartutako konpromiso eta ardurak egituratzen dituela esan dezakegu.

Diagnostikoaren bitartez, emakumeek eta gizonek bizi dituzten beharrizan eta egoera desberdinak identifikatzeaz gain, berdintasun politikak abian jartzeko abiapuntuko egoera zein den aztertu genuen. Horretarako, erakundeetako ordezkari tekniko eta eragileekin elkarrizketak egin genituen, eta baita herritarrekin eztabaida taldeak ere, biztanleriaren ezaugarrien arabera antolatuta. Diagnostiko prozesuan, guztira, elkarrizketatuak eta eztabaida taldeetako partaideak kontuan hartuz, 112 pertsonak hartu zuten parte (89 emakume eta 23 gizon). Prozesu honen bitartez, berdintasunari buruzko eztabaida azaleratu eta mahai gainean jarri dugu; beharrizanei buruzko eztabaidarekin berdintasunaren inguruan atomizatuta egon diren pertzepzio eta ikuspegi desberdinak bateratzen hasi garelako. Diagnostikoak beraz , berdintasun politikak definitzen hasteko testuinguru ezin hobea sortu duela baiezta dezakegu.

Berdintasun Planaren bitartez, diagnostikoaren elaborazio prozesuan piztutako interes eta konpromisoa egituratzen saiatu gara. Horretarako, hiru fasetan antolatu dugu Igorreko berdintasun politiken eztabaida eta definizioa; bakoitzak berdintasunarekiko konpromiso eta inplikazioa lortzeko helburu konkretuak izan ditu. Fase guztietan, eztabaida eta hausnarketak hiru norabidetan bideratu ditugu, ikuspegi politikoa, teknikoa eta herritarrena kontuan hartuz. Udalak

berdintasunaren lorpenean zeresan garrantzitsua badu ere, berdintasun hau ezin izango du bermatu gizartearen beste estamentuek ere parte hartzen ez badute. Horregatik, planaren definizio eta elaborazio prozesu osoan zehar, hiru ikuspegiak bateratzen saiatu gara.

### 1go fasea: Berrikuspen bibliografikoa

Plana prestatzeko emandako lehen pausoa berrikuspen bibliografikoa egitea izan da, EAEko administrazio publikoan berdintasunaren arloan burutzen ari diren politika instituzionalak berrikusi eta Igorreko beharrizan eta egoeratara egokitzen diren neurriak identifikatzeko asmoz. Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana aztertu ditugu, EAEko hainbat udalerritako emakumeen eta gizonen berdintasunerako beste plan batzuekin batera.

### 2.fasea: Helburuen lehenespena

Lehen berrikuspena eginda, eta diagnostikoan detektatutako beharrizan eta egoeretatik abiatuz, Berdintasun Planeko helburu estrategikoak zein planeko ekintzen norabidea definitzeko bilerak egin ditugu Udaleko ordezkari politiko eta teknikoekin. Aldi berean, helburu estrategiko horiek lortzeko zer nolako baliabideak dauden eta Berdintasun Plana garatzeko zeintzuk bidera daitezkeen definitu nahi izan dugu. Igorren, lau mila biztanle inguruko udalerria izanik, baliabideak mugatuak dira eta horregatik, ezinbestekoa  da hauek ondo planifikatzea. Fase honetan, ezinbestekotzat jo ditugun bi eremu identifikatu ditugu: hezkuntza eta emakumeen aurkako indarkeria. Lehen fase bietan lortutako informazioarekin, lan talde teknikoak Planaren lehen zirriborroa osatu dugu.

### 3.fasea: lehen zirriborroaren eztabaida prozesua

Behin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko lehen zirriborroa osatuta, hasierako proposamenak eztabaidatzeko prozesua ireki dugu lau norabidetan:

### -Ordezkari politikoak:

Lehen zirriborroan planteatzen ditugun helburu eta ekintzak aurrera eramateko ezinbestekoa da hauek garatzeko dagoen konpromiso politikoa argitu eta zehaztea. Horretarako, ordezkari politikoekin egindako bileren bidez, berdintasun politikak garatzeko dagoen beharrizana azaleratu nahi izan dugu, aldi berean, beharrizan horretaz politikariak kontzientziatuz. Hau da, sentsibilizazio lana egin dugu batik bat.Guztira hiru bilera egin ditugu ordezkari politikoekin.

### -Udal langile eta teknikoak:

Berdintasun Planaren lehen zirriborroan ezarritako helburu eta neurrien bideragarritasun ekonomiko eta teknikoa egiaztatzeko, lehen pausoa, udal arloetako teknikoekin bilera bana egitea izan da. 5 bilera egin ditugu eta bilera hauetan guztira 6 pertsonek hartu dute parte (3 emakume eta 3 gizon). Honetaz gain, Udaleko langileen ikuspegi eta iritzia kontuan hartzea garrantzitsua denez, Berdintasun Planaren lehen proposamenaren aurkezpena egin dugu. Aurkezpen honetan guztira 17 pertsonek hartu dute parte (9 gizon eta  8 emakume).

### -Erakundeetako ordezkariak eta eragileak:

Berdintasun Planean ezartzen diren neurriak abian jarri eta garatzeko Igorreko Udalak beste erakunde batzuekin elkarlanean jardun beharko du. Dokumentu honen sarreran azaltzen denez, Igorreko Udalak hainbat zerbitzu ditu mankomunatuta Arratia eskualdeko beste udalerriekin. Planeko esku-hartze eremu batzuk (hezkuntza arloa, esaterako) elkarlana izango dute oinarri berdintasun esku-hartzeak garatu ahal izateko. Horregatik, erakunde eta elkarte desberdinetako ordezkariekin bilerak egin ditugu, Planean proposatzen diren ekintzen aldeko konpromisoa landu eta hauek etorkizunean garatzeko beharrezkoa den koordinazioa ezartzeko. Guztira, 17 bilera egin ditugu eta bilera hauetan 30 pertsonek hartu dute parte ( 23 emakume eta 7 gizon).

-Herritarrak eta eragileak:

Udalerriko emakumeen eta gizonen ikuspegia eta iritzia ere kontuan hartu dugu. Horretarako, Berdintasunerako Eztabaida Gunea izeneko parte-hartze espazioa sortu dugu. Bertan, diagnostikoan parte hartu duten emakume eta gizonak biltzeaz gain, udalerriko elkarteak ere inplikatzen saiatu gara. Parte hartze espazio honetan lantalde teknikoak proposatutako helburu eta neurriak eztabaidatu ditugu. Orotara bost bilera egin ditugu eta 29 pertsonek hartu dute parte bilera guzti hauetan (25 emakume eta 4 gizon). Parte hartze espazio hau Berdintasun Batzordea osatzeko testuinguru ezin hobea da.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Planaren hasierako zirriborroari azken ekarpenak egiteko bilera zabala egin dugu, ikuspegi desberdinak batzeko asmoz ordezkari politiko zein teknikoak eta herritarrak gonbidatuz. Topaketa hau esku hartze eremu desberdinak kontuan hartuz antolatu dugu; arlo bakoitzaren arabera lan talde bana sortuz. Lan talde bakoitzean eztabaida gidatzeko eta ekarpenak jasotzeko bideratzaile bana egon da (ikus eranskina). Bideratzaile hauek Eztabaida Guneko parte hartzaileak izan dira: 27-50 urte bitarteko 5 emakume. Topaketa honetan guztira, 12 emakumek eta 4 gizonek hartu dute parte.

### 4.fasea: dokumentu definitiboa egitea

Lehen zirriborroari egindako ekarpenekin Berdintasun Planaren dokumentu definitiboa osatu dugu. Behin dokumentu definitiboa amaituta, Udal Batzan aurkeztu dugu eta dokumentuaren oniritzia jasota Emakunde Emakumearen Euskal Erakunderi helarazi diogu.

Ondoko taulan laburbildu dugu Dokumentuaren elaborazio prozesuaren kronograma:

| Dokumentuaren elaborazio prozesuaren kronograma | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Azaroa | Abendua | Urtarrila | Otsaila | Martxoa | Apirila |
| **Berrikuspen bibliografikoa egin** | | | | | | |
| **Helburuak lehenetsi** | | | | | | |
| Udal ordezkari politikoak | | | | | | |
| Udal teknikoak | | | | | | |
| Berdintasunerako Eztabaida Gunea | | | | | | |
| **Lehen zirribirroa erredaktatu** | | | | | | |
| **Lehen zirribirroa kontrastatu** | | | | | | |
| Udal ordezkari politikoak | | | | | | |
| Udal teknikoak | | | | | | |
| Erakundeetako ordezkariak | | | | | | |
| Berdintasunerako Eztabaida Gunea | | | | | | |
| **Dokumentu definitiboa erredaktatu** | | | | | | |

# 4. Berdintasun Planaren egitura eta ezaugarriak

## a. Planaren ezaugarriak

Planaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat **parte hartzea** izan da. Diagnostikoaren zein Planaren elaborazio prozesuan herritarren (emakume eta gizon) zein eragileen berdintasunarekiko inplikazioa bultzatu nahi izan dugu. Planaren bitartez, konpromiso eta inplikazio hori egituratzeko eta sendotzeko espazioak sortzea izan dugu helburu. Horretarako, besteak beste, etorkizunean Berdintasunerako Batzordea eratzea proposatzen dugu, erabakimen espazioetatik at dauden taldeen beharrizan eta interesak ordezkatzeko gune garrantzitsua izan daitekeena. Gure artean parte-hartze eredu, erritmo eta ikuspegi desberdinak dauden arren, espazio honen egitura eta funtzionamendua, eredu ez androzentrikoan definitzen saiatuko gara. Emakumeak tradizionalki erabakimen espazioetatik at egon dira eta, askok eta askok, oraindik ere, ez dute beraien burua horrelako ekimenetan parte-hartzeko gai ikusten. Hori dela eta, parte-hartze espazio hau abian jartzeaz gain, emakumeen kontzientziazioa indartu eta parte hartzea bultzatuko duen prozesua abiaraziko dugu. Horretarako, Plana abian jarriko dugun urtean, emakume talde desberdinekin harremanetarako bideak finkatuko ditugu (emakume etorkinekin, zaintzaileekin, gazteekin, adinekoekin edota etxekoandreekin, besteak beste); espazio publikoan emakumeen eta emakume taldeen parte-hartzea indartzea bultzatzea baita Planaren ezaugarrietako bat.

**Mainstreaming-a edo zeharkakotasuna** lantzea da Planaren beste xede estrategiko bat, Udalean eta Udalarekin bateratuta dauden erakundeetako programa eta proiektuetan genero ikuspegia txertatzea, hain zuzen ere. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen ditugu bai Udal barneko zein erakundeen arteko koordinazioa eta sentsibilizazio lanak. Gainera, genero ikuspegia udal administrazioan ahalik eta era integralenean barneratzea lortu nahi badin badugu, kontuan hartu behar dugu zein den gure abiapuntua, sailaren arabera genero zein berdintasunarekiko sentsibilitate eta pertzepzio maila desberdinak aurkituko ditugulako Udalean. Aspektu hau aintzat har-

tuko dugu Planeko ekintza eta lan ildoak diseinatzeko orduan, eta baita hauen ebaluazioa egiterako orduan ere.

**Ebaluazio jarraitua** da kontuan hartuko dugun beste aspektuetako bat. Horregatik, aurreikusitako ekintzekin batera, hauen gauzatze maila neurtzen lagunduko diguten adierazleak definitu ditugu. Helburu eta ekintzen gauzatzearen jarraipenean zeresan handia izango dute Berdintasun Planeko kudeaketa egiturek. Ebaluazio jarraituaz gain, Ekintza Planen urte amaierako ebaluazio txostenak burutuko ditugu (ikus eranskinetan) eta baita Planaren amaierako ebaluazio txostena ere.

Bestalde, Planak kontuan hartuko ditu emakume eta gizonek bizi dituzten egoera eta baldintza ezberdinak eta baita emakumeen heterogeneitatea eta zirkunstantzia anitzak ere. Izan ere, genero ezberdintasunekin batera bestelako ezberdintasun egoerak ere jasaten dituzte emakume askok gure gizartean: hala nola, etnia, klase, jatorria, adina, orientazio sexuala edota urritasun fisikoagatik sortutako diskriminazio egoerak. Ondorioz, emakumeek genero araberako ezberdintasuna era anitzetan bizi dute, aipatu ditugun diskriminazio egoerek genero araberako ezberdintasun egoera espezifikoak sortzen dituztelako. Egoera hauek beharrizan eta baldintza konkretuak sortzen dituzte eta ezinbestekoa dugu hauek kontuan hartzea, benetako berdintasuna lortu nahi baldin badugu. Horregatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean, zeharka, emakume talde desberdinen ezaugarri eta beharrizan desberdinak aintzat hartuko ditugula zehazten dugu. Horretarako, ezinbestekoa da emakume desberdinen interesen alde lan egiten duten erakunde eta eragileekin elkarlanean eta era koordinatuan jardutea.

Udalerriko errealitatera ahalik eta gehien egokitzen den Plana osotzea izan da beste helburu bat. Hortaz, esku-hartze eremu batzuetan zentratu dugu gure lana, dauden baliabide eta indar guneetatik abiatuz, eta Planaren gauzatzea erraztuko duten lankidetza estrate-

gikoak lehenetsiz. Hala ere, Lehen Plan hau **irekia eta malgua** dela azpimarratu nahi dugu. Beti ere aintzat hartuko ditugu behin prozesua abian jarrita eta etengabeko ebaluazioaren bitartez identifika ditzakegun hobekuntza, beharrizan eta eraldaketak, Plana aurrera doan heinean berdintasunaren arloan sortzen diren premia berriei era egokian erantzuteko asmoz.

Planaren garapenean **erabiliko dugun hizkuntza** definitzea ere garrantzitsua da. Izan ere, Igorreko Udalak urteetan zehar euskararen erabileraren normalizazioren inguruan apustu sendoak egin ditu eta, beraz, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planaren garapenarekin sortuko ditugun materialetan euskara lehenetsiko dugu. Horretaz gain, ahal den neurrian, Planeko parte-hartze espazioetan ere euskararen erabilera bermatzen saiatuko gara, beti ere partehartzaileen hizkuntza-ezaugarri eta beharrizanak errespetatuz.

## b. Planaren kudeaketa egiturak

Berdintasun Plana abian jarri eta garatzeko, guztiz beharrezkoa da kudeaketa egiturak zehaztea. Egitura bakoitzak, planaren garapena bermatzeko ezinbestekoak diren funtzioak betetzen ditu. Ondoren, kudeaketa egitura bakoitzaren funtzioak eta egitura hauek nortzuk osotzen dituzten  definitzen dugu.tuko dugu Planeko ekintza eta lan ildoak diseinatzeko orduan, eta baita hauen ebaluazioa egiterako orduan ere.

### Udaleko berdintasun batzordea

Herritarrek Berdintasun Planean parte hartu ahal izateko egitura da hau. Berdintasun Planaren diseinu prozesuan abian jarri den parte hartze espazioa da (Berdintasunerako Eztabaida Gunea deitu duguna); Planaren ezarpenean indartu beharrekoa. Beheko taulak kudeaketa egitura honen zenbait funtzio eta nortzuk osatuko duten zehazten ditu. Halere, zehaztu beharra dugu, hauek guztiak Berdintasunerako Batzordea abian jartzerakoan eztabaidatu, definitu eta zehaztuko diren ezaugarriak dira hauek.

| Funtzioak | Partehartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| ▪ Berdintasun Plana abian jarri eta aurrera eramaten lagundu eta proposamenak egin. | ▪ Berdintasunerako Zerbitzuaren arduraduna | 2011 |
| ▪ Berdintasun Planean ezarritako helburu eta ekintzak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu. | ▪ Berdintasun arloko ordezkari politikoak. | 2012 |
| ▪ Helburu eta ekintzen jarraipena, kontrola eta balioestapena egin. | ▪ Emakume taldeetako ordezkariak. | 2013 |
| ▪ Berdintasun unitateei aholkularitza eman. | ▪ Berdintasunaren alde lan egiteko gogoa duten herritarrak | 2014 |
| ▪ Planaren jarraipen eta ebaluazio jardueretan parte hartu. | ▪ Lantaldeetako ordezkariak. | |

## Berdintasunerako batzorde teknikoa

Planean zehazten diren esku-hartzeak garatzeko, Udaleko sailetako eta Udalak mankomunatuta dituen zerbitzuetako erakundeetako arduradunekin osotutako kudeaketa egitura da hau. Bere zeregin nagusia, Berdintasunerako Zerbitzuak planaren helburu eta neurriak betetzeko beharrezkoak dituen koordinazio lanak egitea da. Honetaz gain, lantalde zehatzak ere sortuko dira planaren une jakinetan helburu espezifikoak lantzeko, esku-hartze eremuen arabera (hezkuntza arloan, esaterako). Ondorengo taulak zehazten du kudeaketa egitura honen funtzioak zeintzuk diren eta nortzuk osatzen duten:

| Funtzioak | Partehartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| ▪ Udal arloekin eta erakundeekin berdintasunerako neurriak diseinatu, ezarri eta balioesteko lanak koordinatu: ardurak zehaztu eta tresna eta baliabideak bermatu. | ▪ Udaleko berdintasunerako zerbitzuko arduraduna. | 2011 |
| ▪ Berdintasun Planeko helburu eta neurriak ezarritako epeetan betetzen direla kontrolatu: neurrien jarraipen eta balioespena egin. | ▪ Udaleko sail desberdinetako arduradunak. | 2012<br>2013 |
| ▪ Beharrezkoa denean neurri zuzentzaileak proposatu eta hauek ezartzeko beharra baloratu. | ▪ Berdintasun Plana dela eta udalarekin elkarlanean dabiltzan erakundeetako arduradunak. | 2014 |

**Udaleko Berdintasunerakotalde politikoa**

Berdintasun Planeko helburuak lortu eta horretarako ezarritako neurriak garatzeko ezinbestekoak diren erabaki politiko eta estrategikoak hartzea ahalbidetzen duen egitura da hau. Udaleko Berdintasun Planaren garapena bermatu eta Planaren jarraipena egitea da bere betebeharra.

| Funtzioak | Partehartzaileak | Iraupena |
|---|---|---|
| ▪ Administrazioaren e sparru guztietan garatzen diren berdintasun-politiketako erabakiak koordinatu.<br><br>▪ Berdintasunaren aldeko inplikazio politikoa erraztu eta sustatu horretarako i nformazio egokia emanez Udalaren parte d iren gainontzeko talde politikoei. | ▪ Berdintasunerako zerbitzuaren arduraduna.<br><br>▪ Berdintasun-zinegotzia.<br><br>▪ Alderdietako ordezkari politikoak. | 2011<br><br>2012<br><br>2013<br><br>2014 |

## c. Planaren egitura

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Plan honen egitura ardatz estrategikoen eta esku-hartze arloen inguruan antolatu dugu. Lehenago aipatu dugun lez, Planaren egitura eredua EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik jaso dugu. **Ardatz estrategikoak**, berdintasun erreala lortzeko lehentasunezkoak diren lan ildoak dira, esku-hartze eremu guztietan zeharka jorratu beharrekoak. Hauen inguruan egituratu ditugu datozen urteetako berdintasunerako politika eta neurri konkretuak. **Esku-hartze eremuak**, berriz, berdintasuna lortzeko bidean landuko ditugun arloak dira.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean ezarritako sei arloetatik bost aukeratu ditugu. Izan ere, Lehen Plana izanik, berau abian jartzerakoan topa ditzakegun oztopo eta zailtasunak, zein indarguneak kontuan hartuz, Planaren kudeaketarako oinarri eta egitura sendoak ezartzea izan da gure lehentasuna. Horregatik, lehen urteetako helburu eta ekintzak hiru esku-hartze eremuetan zentratu ditugu: Udalerako neurri orokorrak; kultura, euskara eta kirol arloa; eta hezkuntza.

Berdintasun Plana **arloka** dago egituratua. Arlo bakoitza, gaiari buruzko sarrerarekin hasi dugu. Sarrera honek eremu konkretu bakoitzaren testuingurua eskaintzen digu, bertako berdintasun egoera zein den azalduz. Ondoren, diagnostikoan lortutako informazioa aintzat hartuz, eremu horretan berdintasunarekiko Igorreko egoera zein den azaldu dugu, planaren bitartez eraldatu nahi dugun errealitatea deskribatuz. Azkenik, esku-hartze eremu bakoitzean egingo dugun lana definitu eta laburbildu dugu. Esku-hartze eremu bakoitzeko lau lan-ildo estrategiko landu ditugu eta ardatz hauen arabera ezartzen ditugu lortu nahi ditugun helburuak eta hauek lortzeko egokienak diren neurriak. Aldi berean, ekintzen betetze maila ebaluatuko duten adierazleak, ekintzen planifikaziorako kronograma eta horien garapenean inplikatutako erakundeak zehaztu ditugu. Ondoren, zehatzago azaltzen dugu planaren egitura osatzen duen elementu bakoitza.

## Ardatz estrategikoak

Ardatz estrategikoak Planaren egiturazko elementuak dira eta, ondorioz, erronka estrategikoak azalerazi eta egituratzen dituzte. Udalaren parte diren arlo guztietan landu beharreko lan-lerroak dira eta, hortaz, udalerrian esku-hartze oso eta integrala lortzeko posibilitatea eskaintzen digute. Planean definitutako ardatzak, Emakundek IV. Planean emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera lehenetsi dituen lau aspektu estrategikoak dira, ondoren zehazten ditugunak:

### *1.ARDATZA: Mainstreaming edo zeharkakotasuna*

Botere publikoen politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia barneratzea berdintasun politiken azken urteetako erronka nagusia da. Emakunderen IV. Planean jasotakoaren arabera, genero ikuspegia integratzeak honakoa esan nahi du: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga, eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, esku-hartze publikoan”. Aldi berean, genero ikuspegia udal administrazioaren arlo eta sektore guztietan barneratu eta integratzea posible egingo duen etengabeko prozesua abian jartzea da ardatz honen beste helburuetako bat. Besteak

beste, honako hauek dira genero ikuspegia integratzeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legean zehazten diren neurriak: genero ikuspegia kontutan hartzen duen arlokako planifikazioa, estatistika eta azterlanetan genero perspektiba barneratzea eta administrazioko gaikuntza eta administrazioaren araudi eta jardueran berdintasuna sustatzen duten neurriak biltzea.

## 2.*ARDATZA:* Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerantz aurrerapauso handiak eman ditugun arren, eta berdintasun formala, gaur egun, ukaezina den arren; oraindik ere, desorekak atzeman ditzakegu botererako eta baliabideetarako sarreran, zein hauen erabilera eta kontrolean. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortu nahi baldin badugu, beraz, nahitaezkoa da gure gizartean sexu-genero sistemak sortutako harreman hierarkiko eta ez parekideak gainditzea. Emakumeen ahalduntze prozesua ezinbestekoa da horretarako: emakumeak gizartean duten posizioa indartu eta eraldaketaren agente aktibo bilaka daitezen baliabideak jarri behar ditugu. Ahalduntzea, gutxienez, lau plano desberdinetan bultzatuko dugu: fisikoan, ekonomikoan, politikoan, eta gizarte eta kultura arloan. Beraz, esparru pribatuan zein publikoan, maila indibidualean zein kolektiboan, emakumeen egoeraren eraldaketaz ari gara hitz egiten.

## 3.*ARDATZA:* Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna: gizarte eredu berriaren alde.

Mendebaldeko gizarteetan, industrializazio eta urbanizazio prozesuek emakume eta gizonen arteko espazio, denbora eta funtzioen banaketan oinarritutako gizarte eredua bultzatu dute, lanaren banaketa sexuala izenaz ezagutzen duguna, alegia. Honen arabera, gizonezkoei espazio publikoa dagokie: merkatu laboralean parte-hartzea, familiaren mantenurako diru-sarrerak lortuz. Emakumeak aldiz, esparru domestikoa dute aburu: etxeko lanak egin eta familiako kideen zaintza beharrizanak betetzea. Etxeko lana eta zaintza, emakumeen betebehar gisa definitzen ditu lanaren banaketa sexualak eta, hortaz, ez dute merkatu laboraleko aktibitateek

duten prestigio eta onarpen sozialik lortu. Gaur egun, emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute merkatu laboralean, baina gizonezkoek ez dute beraien parte-hartzea handitu esparru domestikoan. Honek asimetria egoerak erreproduzitu eta indartzen ditu. Merkatu laboralean eta etxeko esparruan gizon eta emakumeen artean dauden desorekak arintzeko, hiru motatako neurriak jorratuko ditugu: gizonen inplikazioa bultzatuz etxeko lanetan erantzunkidetasunerantz aurrerapausoak ematera bideratutakoak; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokitzera zuzenduak; eta azkenik, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna ahalbidetzeko zerbitzu sozio-komunitarioak, laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak egokitzea helburu dutenak.

*4.ARDATZA:* Emakumeen aurkako indarkeria.

Emakumeen aurkako indarkeria emakume eta gizonen arteko ezberdintasun egoeren muturreko adierazpena da. Gizarte eredu patriarkala mantendu eta erreproduzitzeko, gizonezkoen nagusitasuna eta emakumeen gutxiagotasuna bermatzeko, hamaika modurekin topo egiten dugu gure gizartean: emakumeen lana baliogabetzea, andrazkoak botere eremuetatik at uztea, ikusezintasuna, edo gaitasunen murrizketa, besteak beste. Emakumeen gutxiespen sistematikoa eragiten duen jarrera oro hartzen dugu indarkeriatzat, indarkeria fisikoa muturreko adierazpena izanik. Egiturazko gertaera hau desagerraraztea lehentasuna da Berdintasun Planetan eta horretarako ezinbestekoa da indarkeria jasan duten (edo jasaten ari diren) emakumeei babesa eta arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea, eta baita indarkeria prebenitzeko bidean aurrerapausoak ematea ere.

## Lan arloak

Esku hartze eraginkor eta eraldatzailea lortzea nahi baldin badugu, berebiziko garrantzia dauka Planaren bidez zein eremutan esku hartuko dugun zehazteak. Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Planean guztira, sei esku hartze eremu finkatu ditugu:

- Udala Neurri Orokorrak.
- Kultura, Euskara eta Kirola.
- Hezkuntza.
- Lana.
- Gizarteratzea.
- Hirigintza.

Lehenengo esku-hartze eremuak Plana inplementatzeko beharrezkoak diren neurri orokorrak biltzen ditu. Neurri hauek Plana garatzeko eta beste arlo guztietan ekintzak aurrera eramateko ezinbesteko baldintzak definitzen dituzte. Aldi berean, lan-esparru moduan udal administrazioa bera hartzen duten neurriak dira, eta beraz, Udalaren barne funtzionamenduan eragiten dute.

IV. Planak ezarritako sei lan esparruetatik, bost landuko ditugu. Dauden baliabideak, Planaren abiapuntua eta hasierako egoera kontuan hartuta, Osasuna lan esparru gisa Lehen Planetatik kanpo uztea erabaki dugu. Hala ere, ez dugu baztertzen etorkizunean eremu honetan jardutea.

## Helburuak eta ekintzak

Planean bi eratako helburuak definitu ditugu: helburu orokorrak eta helburu zehatzak. **Helburu orokorrek**, aldatu nahi dugun errealitateari egiten diote erreferentzia. **Helburu zehatzek** berriz, aldaketa hori nola gauzatuko dugun definitzen dute, eta emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak aldatzeko tresnei egiten diote erreferentzia. **Ekintzek** aldiz, helburu horiek zein neurriren bidez lortuko ditugun zehazten dute. Ondorengo taulan helburu orokor, helburu zehatzen, ekintzen eta neurrien kopurua adierazten dugu

| Eremuaren arabera | Partehartzaileak Helburu orokorrak | Helburu zehatzak | Ekintzak |
|---|---|---|---|
| 1.EREMUA: Udala neurri orokorrak | 7 | 8 | 36 |
| 2.EREMUA: Kultura, Euskara eta Kirola | 5 | 5 | 20 |
| 3.EREMUA: Hezkuntza | 5 | 7 | 27 |
| 4.EREMUA: Lana | 3 | 6 | 18 |
| 5.EREMUA:Gizarteratzea | 4 | 5 | 17 |
| 6.EREMUA: Hirigintza | 5 | 5 | 17 |
| GUZTIRA | 28 | 35 | 144 |

## Adierazleak

Bi motatako adierazleak daude: emaitzen adierazleak eta betetze mailaren adierazleak. **Emaitzen adierazleak**, aldatu nahi dugun errealitatearen moldaketa neurtzen dute. Hau da, abiapuntuko egoera zenbat aldatu den erakusten digute eta, beraz, helburuak lortu ditugunetz zehazten laguntzen digute. **Betetze mailaren adierazleak** (edo prozesu adierazleak), aldiz, planaren betetze maila neurtzen laguntzen digute. Hau da, plangintzan ezarritako neurriak bete direnetz eta aldez aurretik espero dugun eragina izan dutenetz erakusten digute. Kasu honetan, Igorreko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lehen Planean ekintzen betetze maila neurtuko duten adierazleak definitu ditugu ekintza bakoitzerako (ikus dokumentuaren 5. atalean).

## Faseak

Ekintzak aurrera eraman ahal izateko, planifikazioa definitu beharra dugu. Honen bitartez, urte bakoitzean aurrera eramango ditugun lanak eta zenbat denboran luzatuko diren zehaztu dugu. Programazio honek urteroko esku hartzea (Urteroko Ekintza Plana) definitzen laguntzen digu. Planifikazioan lehentasunak jarri behar izan ditugu, ondorengo faseen arabera egituratu ditugunak:

### *1.FASEA (lehen urtea 2010)*

Plana abian jarri eta garatzeko beharrezkoak diren kudeaketa egiturak sortzera bideratuko dugu lana. Esku-hartze eta programa konkretuekin hasi aurretik, beharrezkoa da Udaleko sailekin, erakunde,

eragile eta emakume taldeekin koordinazio eta kudeaketa egiturak ezartzea, Plan eraginkor eta parte hartzailea eratu ahal izateko. Horretarako, sentsibilizazio eta kontzientziazio lan garrantzitsua burutu beharko dugu.

*2.FASEA (bigarren urtea 2011)*

Esku-hartze konkretuak martxan jartzen hasiko gara, batez ere, Udaleko neurri orokorrei dagokienean.

*3.FASEA (hirugarren eta laugarren urteak 2012 eta 2013)*

Fase honetan eremuetako esku-hartzeari ekingo diogu eta azken urtean garrantzi berezia emango diogu amaierako ebaluazioa egiteari.

## Arduradunak eta inplikatutako eragile edota erakundeak

Ekintzak egin eta neurriak ezartzearen arduradun nagusia berdintasunerako teknikaria izango da. Aurrerago, teknikaria, ekintza konkretuak aurrera eramateko zein erakunde eta eragileekin arituko den elkarlanean definituko dugu.

## Aurrekontua

Igorreko Udalak, momentuz, 20.000 euro zuzenduko dizkio Berdintasun Planari. Halere, berdintasun politikek konpromiso handiagoa eskatzen dutela jakinik, ez dugu baztertzen etorkizunean aurrekontua handitzeko aukera.

# 4.Esku-hartzea

## d. Udala: Neurri orokorrak

### Sarrera

Udalari buruz dihardugunean, bere izaera hirukoitza hartu dugu kontuan. Alde batetik, udala langile eta enpresa kontratatzaile da. Udaletxea lan egiteko lekua da, eta neurri horretan, edozein lantokitan hartzen diren neurri berberak har ditzake udalak gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ekiditeko bidean. Era berean, udala lan kontratatzailea ere bada, eta neurriak ezar ditzake kontratatzen dituen enpresetan gerta daitezkeen diskriminazioak desagertze aldera, besteak beste, emakumezkoen aldeko ekintza positiboak bultzatuz. Beste aldetik, udala administraria da eta, hortaz, garrantzitsua da hartutako erabakietan, errekurtsoen banaketan eta eskaintzen dituen zerbitzuetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea. Azkenik, udala herritarren ordezkaria eta eskaera eta beharren kudeatzailea ere bada, eta zerbitzu hornitzaile den heinean, udalaren gertutasuna eta herritar guztien beharrei erantzuteko gaitasuna bermatu behar ditu, horretarako arreta berezia jarriz emakumeen bizi-egoera heterogeneoei eta hauetatik sortutako eskaera eta behar konkretuei.

Igorre 4.249 biztanle dituen Bizkaiko udalerria da. Hauetatik 2.151 emakumezkoak dira eta 2.098 gizonezkoak[5] . Udala, besteak beste, kultura, kirola, euskara eta hirigintza sailetan dago banatua. Zerbitzu hauetaz gain, Arratia bailarako beste udalerriekin zerbitzu desberdinak ditu mankomunatuta erakunde desberdinetan. Arratiako Udalen Mankomunitatearen bitartez, adibidez, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta Agenda 21ekoak bateratuta daude. Gorbeialdea Arratia-Nerbioiko Landa Garapenerako Elkartearen bitartez, besteak beste, Gazte Plana zerbitzua ere eskaintzen du Igorreko Udalak.

[5]Udal Erroldako datuak, 2010eko urtarrilaren 1ekoak.

Diagnostikoak berdintasunaren arloan hobetu beharreko Udalaren funtzionamendu eta lan-moduei buruzko zenbait aspektu azalarazi dizkigu. Alde batetik, Udaleko langileen artean, zein esleipendun

enpresetan, sexuaren araberako lanaren banaketarekin lotutako estereotipoak betetzen direla konturatu gara: gizonezkoak espazio publikoan egiten diren lanak eta lan teknikoak burutzen dituzte, emakumeek berriz, administrazio, kultura, ongizatea eta haurren zaintzarekin lotutakoak. Bestalde, Udalak orain arte egindako zenbait ekintzen bidez (diagnostikoa eta Plana burutuz, edota Martxoak 8 eta Azaroak 25a dela eta ekimenak aurrera eramanez, esaterako) berdintasunaren bidean esku-hartzeko borondatea erakutsi badu ere, oraindik ez du dagozkion lan esparruetan (kontratazioa, aurrekontuak eta herritarrekin hartu-emanak) genero ikuspuntua zeharkako eran ezartzerik lortu. Hortaz, esku hartze eremu honetan, batez ere, Udaleko jardunean genero ikuspegia txertatu eta berdintasunerako konpromisoan aurrera egiteko neurriak definitu ditugu.

Horretaz gain, arlo honek Berdintasun Plana inplementatzeko beharrezkoak diren neurri orokorrak barne hartzen ditu, Udaleko lanmoduan mainstreaming-a sartzeko eta administrazioaren barruan Berdintasun Plana garatu ahal izateko baldintzak ezarriz. Udal administrazioaren sail guztiei eragiten dieten neurriak dira, barrurantz begira egin beharreko lana kanporakoa baino. Neurri hauen bitartez, genero mainstreaming-a ezartzeko ezinbestekoak diren lanmoduak jarriko ditugu martxan; beharrezkoak direnak, alde batetik, neurri hauek gabe ezinezkoa delako Planaren beste alderdi guztiak garatzea eta, bestetik, planteatutako ekintzetako asko eta asko berdintasunerako 4/2005 Legearen eskakizunak direlako.

**Mainstreaming** ardatzaren bitartez, Udaletik bi norabidetan lan egiteko neurriak definitu ditugu. Alde batetik, Udalak gai honekiko erakutsi duen konpromisoa denboran zehar eta betekizun zehatzen bitartez mantentzeko ezinbestekoak diren egitura eta baliabideak definitu ditugu, aldi berean, Udaleko jardunean genero ikuspegia txertatzen joan ahal izateko ekintzak zehaztuz. Bestetik, Udalean inplementatutako neurrien bitartez, herritarrak berdintasunaren aldeko konpromisoan inplikatzea dugu helburu, berau baita herritarren egunerokotasunera gehien hurbiltzen den erakunde publikoa.

Zeregin honetan sentsibilizazio kanpainak aurrera eramateaz gain, berdintasunaren lorpenean eraginkortasun nabarmena izango duen neurria proposatzen dugu: Berdintasunerako Batzordearen sorrera.

**Ahalduntze** ardatzaren bitartez emakumeek udalerriko esparru publikoan duten posizioa eta eraginkortasuna indartu nahi dugu, batez ere, Udalarekin zerikusia duten parte-hartze eta erabakimen espazioetan. Horretarako, egun Igorren existitzen diren emakume talde erdi egituratuak indartze aldera egingo dugu, udalerriko dinamiketan eragiteko duten ahalmenari bultzada berezia emateko asmoz. Aldi berean, udalerriko emakumeen kontzientziazio prozesua abiarazi eta era aktiboagoan esparru publikoan jardutea ahalbidetuko duen ahalduntzea bultzatuko duten ekintzak planteatzen ditugu.

**Erantzunkidetasunari eta bateragarritasunari** buruz, Udalak zeresan handia du eta beharrezkoa da Udaleko langileen zein herritarren bizitza laboralaren, familiarraren eta pertsonalaren bateragarritasuna erraztea ahalbidetuko duten neurriak abian jartzea. Kontziliazioa erraztera bideratuta planteatzen ditugun neurriak, batez ere, umeen zaintzan zentratzen dira. Jakin badakigu, bizitza laboralaren, pertsonalaren eta sozialaren kontziliazioa errazteko, adinekoen eta mendekotasuna daukaten pertsonen zaintzak arreta berezia behar duela; momentuz, umeen zaintzan jarri dugu arreta ordea, udalerrian horretarako baliabideak egon badaudelako eta kontziliazioa errazte aldera hobe daitezkeelako. Halere, etorkizuneko kontziliazio neurrietan adinekoen eta mendekotasuna daukaten pertsonen zaintza erraztuko duten ekimenak barne hartzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

**Indarkeriaren** ardatzari dagokionez, ezinbestekoa deritzogu indarkeria egoerei modu eraginkorrean aurre egingo dion tokiko protokoloa abian jartzeari, udal administrazioa zein udalerriko beste erakunde batzuk modu bateratu eta efektiboan lan egin ahal izateko.

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **1.1** Genero mainstreaming-a Udalean txertatzea eta Lehen Berdintasun Plana aurrera eramateko baliabideak eskaintzea. |
| **Helburu zehatzak** | **1.1.1** Udalak, udal korporazioan zein udalerrian emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarri eta egiturak sortzea**.** |

**Estrategiak**

- Berdintasun politikak abian jarri eta era egokian garatzeko baliabideak ezartzea Udalean, berdintasun sailean bertan, zein beste sailetan.
- Udaleko, udalaz gaindiko eta eskualdeko baliabideen arteko koordinazioa bultzatzea, arlo desberdinetan garatuko diren berdintasun politikak koherentziaz aurrera eramateko.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzuak eta baliabideak | **1.1.1.1** Berdintasun-plana garatu, jarraipena egin eta ebaluatu. | | | | |
| | **1.1.1.2** Berdintasun-plana garatzeko behar diren bitarteko ekonomiko, tekniko eta pertsonalak jarri. | | | | |
| | **1.1.1.3** Aukera-berdintasunaren inguruan diharduten udalerriz gaindiko erakundeekin elkarlana bultzatu eta horretarako dauden lan egituretan parte hartu (Berdinsarea edota Emakunde, besteak beste). | | | | |
| | **1.1.1.4** Eskualdeko erakundeekin berdintasun helburuak lortu asmoz, harremanak indartu eta elkarlana bultzatu. | | | | |
| | **1.1.1.5** Berdintasun-batzorde teknikoa eratu Udaleko sail guztietako kideekin. | | | | |
| | **1.1.1.6** Berdintasunerako zerbitzua sortu eta bertan lan egiteko pertsona bat kontratatu. | | | | |
| | **1.1.1.7** Berdintasunerako zerbitzua eta bertako lanpostua mantendu planak irauten duen bitartean. | | | | |
| | **1.1.1.8** Urteroko Ekintza Plana eta Lehen Berdintasun Planaren urtez urteko jarraipen eta ebaluaziorako prozedurak prestatu. | | | | |
| Jarraipena | **1.1.1.9** Lehen Planaren ebaluazioa egiteko tarteko eta amaierako txostenak prestatu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Udal Korporazioa.
-Berdintasun Batzordea.
-Berdintasun Zerbitzua.
-Eskualdeko erakundeak: Arratiako Udalen Mankomunitatea eta Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.1.1.1** | • Berdintasun Planean definitu diren ekintzetatik aurrera eraman direnen proportzioa.<br>• Aurrera eraman diren ekintzetatik era arrakastatsuan garatu direnen proportzioa.<br>• Berdintasun Planari jarraipena egiteko Planaren kudeaketa egiturek egindako bilera kopurua.<br>• Berdintasun Planari egindako ebaluazio dokumentu kopurua. |
| **1.1.1.2** | • Udalaren aurrekontu osotik Berdintasun Planera zuzendutako aurrekontuaren proportzioa.<br>• Sail bakoitzetik Berdintasun Planera zuzendutako aurrekontuaren proportzioa, sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Udalak dituen azpiegituretarik, Berdintasun Planera bideratutakoen proportzioa.<br>• Udal arduradunek Berdintasun Planarekin lotutako gaiekin enplegatutako denbora (ordu kopurua), sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **1.1.1.3** | • Udalak parte hartu duen berdintasunera bideratutako Udalaz gaindiko lan-egitura kopurua.<br>• Berdintasunera bideratutako Udalaz gaindiko erakundeekin Udalak izandako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Bilera hauen bidez adostutako ekimen kopurua.<br>• Adostutako ekimenetatik aurrera eramandakoen proportzioa.<br>• Aurrera eramandako ekimenetatik era arrakastatsuan garatu direnen proportzioa. |
| **1.1.1.4** | • Berdintasunaren inguruan Udalak hartu-emana izan duen eskualdeko erakundeen proportzioa.<br>• Berdintasunaren inguruan Udalak eskualdeko erakundeekin izandako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Bilera hauen bidez adostutako ekimen kopurua.<br>• Adostutako ekimenetatik aurrera eramandakoen proportzioa.<br>• Aurrera eramandako ekimenetatik era arrakastatsuan garatu direnen proportzioa. |
| **1.1.1.5** | • Berdintasun-batzorde teknikoan parte hartzen duen pertsona kopurua sexuaren arabera eta ordezkatzen duten sailaren arabera bereizita.<br>• Udaleko sailetatik berdintasunerako batzorde teknikoan ordezkaturik dagoenen proportzioa, genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Berdintasun batzorde teknikoak burututako bilera kopurua eta hauen maiztasuna. |

| | |
|---|---|
| **1.1.1.6** | • Berdintasun zerbitzuak berdintasun politikak garatzeko enplegatutako ordu kopurua urtean.<br>• Berdintasun zerbitzuak berdintasun politikak garatzeko urtean enplegatutako ordu kopurua eta beste sailak beraien lana burutzeko enplegatutako ordu kopuruaren arteko ratioa.<br>• Berdintasunerako zerbitzuko lanpostuak Udalarentzat duen kostua Udaleko beste teknikariek<br>• Udalarentzat duten bataz besteko kostuarekin alderatuz. |
| **1.1.1.7** | • Berdintasun zerbitzuak berdintasun politikak garatzeko urtean enplegatutako ordu kopurua.<br>• Berdintasun zerbitzuak berdintasun politikak garatzeko urtean enplegatutako ordu kopurua eta beste sailak beraien lana burutzeko enplegatutako ordu kopuruaren arteko ratioa.<br>• Berdintasunerako zerbitzuko lanpostuak Udalarentzat duen kostua Udaleko beste teknikarien lanpostuek Udalarentzat duten bataz besteko kostuarekin alderatuz. |
| **1.1.1.8** | • Ekintza Planean definitutako ekintzetatik, aurrera eramandakoen proportzioa.<br>• Aurrera eramandako ekintzetatik modu arrakastatsuan garatu direnen proportzioa. |
| **1.1.1.9** | • Ebaluazio prozesu jarraitua aurrera eramateko egindako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ebaluazio prozesuan parte hartu duen pertsona kopurua sexua eta ordezkatzen duen erakunde edo kudeaketa egituraren arabera bereizita.<br>• Aurrera eramandako ekintzetatik, ebaluazio prozesuari esker hobetu direnen proportzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **1.1** Genero mainstreaming-a Udalean txertatzea eta Lehen Berdintasun Plana aurrera eramateko baliabideak eskaintzea. |
| **Helburu zehatzak** | **1.1.2** Udalaren jarduera orokorrean genero ikuspegia txertatzea ahalbidetuko duten baliabideak eskaini eta tresnak sortu. |

**Estrategiak**

- Udalerrian mantentzen diren ezberdintasun egoerak agerian utzi eta horietan esku-hartzeko edo aurrerapausoak identifikatzeko bitartekoak eskaintzea.
- Udaleko sail desberdinetako teknikari eta ordezkari politikoak genero ikuspegia barneratzeak duen garrantziaz ohartaraztea.
- Udal korporazioa osatzen duten kide guztiei (ordezkari politiko, teknikari zein langileak) berdintasunarekiko jarrera positiboak transmititzeko baliabideak eskaini eta tresnak sortzea.
- Udal korporazioko funtzio eta lanpostuetan genero estereotipoak gainditzea erraztuko duten lanabesak sortzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Prestakuntza | **1.1.2.1** Udaleko langile guztiei oinarrizko formazioa eman euren eguneroko lanean genero-ikuspegia kontuan har dezaten. | | | | |
| | **1.1.2.2** Komunikazio era ez sexista landu, arreta berezia jarriz argitaratzen diren agirien lengoaia eta irudietan (idazkiak, kartelak ...). | | | | |
| Prestakuntza | **1.1.2.3** Udaleko sailetako behar espezifikoetara egokitutako genero-prestakuntza diseinatu eta abian jarri, sail bakoitzeko plangintzak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko orduan genero ikuspegia txertatu ahal izateko. | | | | |
| Araua | **1.1.2.4** Udalak erabiltzen dituen estatistika eta datu base guztiek informazioa sexuen arabera bereizten dutela eta sexuaren araberako analisia egiten dutela ziurtatu. | | | | |
| Araua | **1.1.2.5** Oposizioetako gai-sortan, gutxienez, aukera berdintasunari buruzko gai bat sartu. | | | | |
| Zerbitzu eta baliabideak | **1.1.2.6** Sail bakoitzeko jarduera genero ikuspegitik aurrera eramatea ahalbidetuko duten lan-tresnak sortu (praktika eredugarriei buruzko gidak, adibidez) . | | | | |
| | **1.1.2.7** Udal korporazioko funtzio eta lanpostuetan genero estereotipoak gainditzea erraztuko duten lanabesak sortu. | | | | |
| | **1.1.2.8** Berdintasunerako Udal Ordenantza sortzeko pausuak eman. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Udal Korporazioa.
-Berdintasunerako Zerbitzua.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.1.2.1** | • Udaleko langileei berdintasunaren inguruko oinarrizko kontzeptuei buruzko formazioa emateko egindako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Udaleko langileei zuzendutako berdintasunaren inguruko oinarrizko kontzeptuei buruzko formazio saioetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Formazio saioekiko parte hartzaileen asebetetze maila, sexua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **1.1.2.2** | • Komunikazio era ez sexista lantzeko burututako formazio saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Komunikazio era ez sexista lantzeko formazio saioetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Formazio saioekiko parte hartzaileen asebetetze maila, sexua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Udaletik sortutako materialetatik, komunikazio era ez sexista erabili dutenen proportzioa. |
| **1.1.2.3** | • Udaleko sailetako ordezkari politiko eta teknikoei beraien sailetan genero ikuspegia barneratzeko prestakuntzarako eskainitako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna .<br>• Udaleko sailetan genero ikuspegia barneratzeko prestakuntza saioetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, kargua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Udaleko sailetan genero ikuspegia barneratzeko prestakuntzarekiko parte hartzaileen asebetetze maila, sexua, kargua eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Udaletik aurrera eramandako ekimenetatik, genero ikuspegia kontuan hartzen dutenen proportzioa sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera. |
| **1.1.2.4** | • Udaleko estatistiketatik, genero ikuspegia kontuan hartzen duten proportzioa. |
| **1.1.2.5** | • Egindako oposizio deialdietatik, berdintasuna gai sortan barneratuta dutenen proportzioa.<br>• Oposizioetako gaietatik, aukera berdintasunari buruzkoak direnen proportzioa. |

| | |
|---|---|
| **1.1.2.6** | • Sail bakoitzeko jarduera genero ikuspegitik aurrera eramatea ahalbidetuko duen lan-tresna kopurua, sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Sortutako lan-tresnekiko saileko arduradun eta teknikarien asebetetze maila, sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera. |
| **1.1.2.7** | • Udal korporazioko funtzio eta lanpostuetan genero estereotipoak gainditzera egindako ekintza kopurua. |
| **1.1.2.8** | • Berdintasunerako Udal Ordenantza sortzeko egindako bilera kopurua eta hauen maiztasuna. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| UDALA | | MAINSTREAMING-A | | | |
| **Helburu Orokorra** | **1.2** Herritarrak emakume eta gizonen berdintasunean inplikatzea. | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **1.2.1** Herritarrak aukera berdintasunean sentsibilizatu eta Udaletik berdintasunaren arloan burutzen diren ekimenetan inplikatzea. | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | |
| - Herritarrak Berdintasun Planaren garrantziaz ohartaraztea eta berdintasunaren aldeko ekintzetan inplikatzea.<br>- Udalaren, herritarren eta eragileen arteko elkarlana bultzatzea berdintasunaren lorpenean. | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2010-2013)** | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** |
| Informazioa eta sentsibilizazioa | **1.2.1.1** Udaleko zein Udalaz gaindiko erakundeetako pertsonalari eta herritarrei diagnostikoaren zein Berdintasun Planaren edukia azaltzeko Komunikazioa Plana prestatu (argitalpenak edota aurkezpen ekimenak, adibidez). | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **1.2.1.2** Berdintasun Planaren garapenarekin lotutako gaietan erabaki ahalmena izango duen Berdintasun Batzordea sortu, berdintasunaren inguruan lan egin nahi duten herritarrekin, eragileekin, eta bereziki, emakume elkarte eta taldeekin. | | | | |
| Informazioa eta sentsibilizazioa | **1.2.1.3** Herritarrak aukera-berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina orokorrak egin, besteak beste, Martxoaren 8a eta Azaroaren 25a aintzat hartuz. | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | |
| -Herritarrak eta eragileak (elkarteak, sindikatuak eta mugimendu sozialak, besteak beste).<br>-Berdintasun Zerbitzua | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.2.1.1** | • Komunikazio Planean definitutako ekintzetatik, aurrera eramandakoen proportzioa.<br>• Aurrera eraman diren ekintzetatik, arrakasta izan dutenen proportzioa.<br>• Komunikazio Planeko ekintza bakoitzeko hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Komunikazio Planak izan duen arrakastaren inguruan Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |
| **1.2.1.2** | • Berdintasun Batzordeak egindako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Berdintasun Batzordean parte hartzen duen pertsona kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila, egitura familiarra eta ordezkatzen duen erakundearen arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordean hartutako erabaki kopurua, erabakia bideratuta dagoen sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera.<br>• Berdintasun Batzordeak hartutako erabakietatik, Udalak bere jardunean kontuan hartu dituenen proportzioa. |
| **1.2.1.3** | • Herritarrak aukera-berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko aurrera eramandako kanpaina orokor kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Herritarrak aukera-berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko aurrera eramandako kanpaina bakoitzeko hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera.<br>• Sentsibilizazio kanpaina orokorrek izan duten arrakastaren inguruan Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **1.3** Emakumeen parte-hartzea indartzea udal prozesuetan, politika publikoen definizio, jarraipen eta ebaluazioan parte-hartzeko modua izan dezaten |
| **Helburu zehatzak** | **1.3.1** Emakumeen eta emakume elkarteen presentzia bultzatu eta bermatzea erabakimen espazioetan, beti ere, emakumeen parte-hartze maila zein beraien arteko heterogeneotasuna kontuan hartuz (gazteak, adinekoak, etorkinak, etxeko andreak…) |

**Estrategiak**

- Emakumeak eurak kontzientziatu erabakimen espazioetan euren parte-hartzeak duen garrantziaz.
- Aukera berdintasunez parte har dezaten egoera eta ezaugarri desberdinak dituzten emakumeak gaitu.
- Emakumeen parte-hartzea eta erabakimen ahalmena bultzatu Udaletik sortzen diren parte-hartze dinamiketan, udalerriko emakumeen heterogeneotasuna, parte-hartze eredu aniztasuna eta emakumeen talde informaletako egitura eta dinamikak aintzat hartuz: emakume gazteak, etorkinak, adinekoak edota etxeko andreak, besteak beste.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Jakintza/Jarraipena | **1.3.1.1** Udaletik sortutako parte-hartze espazioetan parte hartzen duten pertsonen inguruko datu bilketa sistematizatua egiteko irizpideak jarri genero ikuspegia aintzat hartuz. | | | | |
| Jabearaztea | **1.3.1.2** Emakumeek udal eremuko erabakimen prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaz jabearazteko kanpainak egin. | | | | |
| Araua | **1.3.1.3** Udalak antolatutako ekimen publikoetan emakumeen protagonismoa bermatu. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **1.3.1.4** Erabakiak hartzeko partaidetza prozesuetan emakumeen parte hartzea eta protagonismoa bultzatzeko, parte hartzeko eta elkar ezagutzeko bideak ireki ("topalekuak", esaterako). | | | | |
| | **1.3.1.5** Emakumeen ahalduntze eta jabekuntza prozesua abiaraziko duen ekintzak burutu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

- Udalerriko Emakumeak eta Emakume Taldeak.
- Berdintasunerako Zerbitzua.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.3.1.1** | • Udaletik sortutako parte-hartze espazioetako parte hartzeari buruz egindako sistematizazioetatik, genero ikuspegitik burututakoen proportzioa. |
| **1.3.1.2** | • Udal eremuko erabakimen prozesuetan emakumeen parte hartzeak duen garrantziaz jabearazteko emakume taldeekin egindako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Kontzientziazio kanpainen hartzaile potentziala izan den emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **1.3.1.3** | • Udaleko ekimen publikoetatik, emakumeen presentzia izan dutenen proportzioa. |
| **1.3.1.4** | • Emakume taldeekin ezarritako harreman egitura kopurua.<br>• Harreman egitura hauetatik sortutako ekimen kopurua.<br>• Harreman egitura hauetan parte hartzen duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **1.3.1.5** | • Emakumeen ahalduntze eta kontzientziazioa helburu duen ekimen kopurua.<br>• Ekimen hauetan parte hartzen duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Ahalduntze eta kontzientziaziorako ekimenekiko parte hartzaileen asebetetze maila adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA |
| **Helburu Orokorra** | **1.4** Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztea udal korporazioan. |
| **Helburu zehatzak** | **1.4.1** Udal korporazioan bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko lanabesak sortzea. |

**Estrategiak**

- Udaleko langileek bizitza laborala, familiarra eta pertsonala bateragarri egiteko bidean dituzten oztopoak identifikatu eta hauek gainditzea.
- Udaleko langileak etxeko eta zaintza lanak partekatzeak duen garrantziaz kontzientziatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Jakintza | **1.4.1.1** Udal korporazioko partaideek bateragarritasuna eta erantzunkidetasunaren inguruan dituzten oztopoak identifikatzeko diagnostikoa egin. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **1.4.1.2** Diagnostikoko emaitzak kontuan hartuz, udal korporazioko partaideen bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztuko duten aldaketak egin (ordutegietan eta baimenak eskuratzerakoan, esaterako) eta baliabideak eskaini. | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **1.4.1.3** Korporazioko langileen artean erantzunkidetasuna lantzeko sentsibilizazio kanpainak egin (ikastaroak eginez, esaterako). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

- Berdintasunerako Zerbitzua
-Ongizate Arloa.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.4.1.1** | • Udal korporazioko partaideen bateragarritasuna eta erantzunkidetasunaren inguruan, diagnostikoaren bidez identifikatutako beharrizan kopurua.<br>• Diagnostikoan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, egitura familiarra eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **1.4.1.2** | • Udal korporazioko partaideen bateragarritasuna errazteko aurrera eramandako aldaketa kopurua.<br>• Udal korporazioko partaideek aldaketa horiekiko erakutsi duten asebetetze maila, sexua, egitura familiarra eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **1.4.1.3** | • Erantzunkidetasunaz sentsibilizatzeko Udaleko langileen artean egindako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio ekimenetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, egitura familiarra eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio ekimenekiko parte hartzaileen asebetetze maila, sexua, egitura familiarra eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA |
| **Helburu Orokorra** | **1.5** Udalak bizitza laboralaren, sozialaren eta familiarraren bateragarritasuna bermatzen duen erantzukizun soziala bere gain hartzea. |
| **Helburu zehatzak** | **1.5.1** Udaletik udalerrira begira egiten diren ekimenetan bateragarritasuna bermatzea kontziliaziorako neurriak ezarriz. |

**Estrategiak**

- Udaletik antolatzen diren erabakimen edota parte-hartze espazioetan emakume eta gizonek aukera berdintasunez parte hartu ahal izateko baliabideak ezartzea eta zaintza ardurak dituzten emakume eta gizonek parte hartzeko moduko baldintzetan aurrera eramatea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Baliabide eta zerbitzuak | **1.5.1.1** Udaletik antolatzen diren espazio parte-hartzaile eta bestelako udal ekimenetan, emakume eta gizonen parte-hartzea bermatzea ahalbidetuko duen haurtzaindegi zerbitzua eskaintzea. | | | | |
| | **1.5.1.2** Udaletik herritarren parte-hartzerako irekitako erabakimen espazioen ordutegiak (plenoenak, esaterako), emakume eta gizonek dituzten zaintza betebeharrak kontuan hartuz ezartzea. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

- Berdintasunerako Zerbitzua
-Ongizate Arloa.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.5.1.1** | • Haurtzaindegi zerbitzua duten Udaletik antolatutako espazio parte hartzaile eta bestelako udal ekimenen proportzioa.<br>• Haurtzaindegian parte hartzen duen ume kopurua udal ekimenaren eta umeen adinaren arabera bereizita.<br>• Haurtzaindegi zerbitzuen erabiltzaile kopurua sexua, egitura familiarra eta udal ekimenaren arabera bereizita.<br>• Haurtzaindegiko erabiltzaileen zerbitzuarekiko asebetetze maila, sexua eta familia egituraren arabera bereizita. |
| **1.5.1.2** | • Udaletik herritarren parte-hartzerako irekitako erabakimen espazioetatik, familia arduren ordutegietara egokitzen direnen proportzioa.<br>• Udaleko erabakimen espazioetan parte hartzen duten herritarrek hauen ordutegiekiko duten asebetetze maila, sexua eta familia egituren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | INDARKERIA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **1.6** Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, tokiko administrazioaren koordinazioa indartu eta hobetzea. |
| **Helburu zehatzak** | **1.6.1** Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko lan egiten duten Igorreko erakunde guztien artean, modu koordinatuan lan egiteko protokoloa sortzea. |

**Estrategiak**

- Emakumeen aurkako indarkeriari modu eraginkorrean aurre egitea ahalbidetuko duen tokiko protokoloa sortu eta inplementatu, esparru honetan jarduteko gaitasuna duten eragile guztiak inplikatuz (Udaleko zein erakundeetako langile eta arduradunak) eta bakoitzaren funtzioak definituz, horretarako beharrezkoa den koordinazioa lortuz.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Baliabide eta zerbitzuak | **1.6.1.1** Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloa diseinatu eta indarrean jarri. | | | | |
| | **1.6.1.2** Koordinazio egiturak sortu, bortizkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko. | | | | |
| Prestakuntza | **1.6.1.3** Protokoloko parte diren erakundeetako langileei zuzendutako genero-indarkeriari buruzko trebakuntza eskaini eta bete behar dituzten funtzioetan gaitu. | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **1.6.1.4** Bai Udalean eta baita udalerrian ere, indarkeriari aurre egiteko protokoloa ezagutzera emateko kanpaina egin. | | | | |
| Jarraipena | **1.6.1.5** Behin protokoloa martxan jarrita, Udalean protokoloa garatzeko egon daitezkeen muga eta oztopoak identifikatu eta hauek gainditzeko beharrezko hobekuntzak egin. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun Zerbitzua
- Udalaren arlo guztiak
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Igorreko Osasun Zentroa
- Oinarrizko Gizarte-zerbitzuak
-Igorreko Hezkuntza Zentroak
- Epaitegia

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.6.1.1** | • Protokoloa diseinatzeko prozesuan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, erakundea eta genero ikuspegiarekiko udal sailen sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileek protokoloarekiko duten asebetetze maila sexua, erakundea eta genero ikuspegiarekiko udal sailen sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **1.6.1.2** | • Bortizkeriaren biktima diren emakumeen arretarako koordinazio egitura kopurua.<br>• Indarkeriaren inguruko gaietan inplikazioa izan dezaketen erakundeetatik, koordinazio egitura hauetan parte hartu dutenen proportzioa.<br>• Koordinazio egitura hauetan hartutako erabaki kopurua.<br>• Koordinazio egitura hauetan hartutako erabakietatik era arrakastatsuan aurrera eramandakoen proportzioa. |
| **1.6.1.3** | • Protokoloaren parte diren langileei genero-indarkeriari buruzko formaziorako eta bete beharko dituzten funtzioen inguruko trebakuntzarako eskainitako ikastaroen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, partaide diren udal arlo eta erakundea eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Trebakuntza saioekiko parte hartzaileek duten asebetetze maila, sexua, partaide diren udal arlo eta erakundea eta sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita |
| **1.6.1.4** | • Protokoloa ezagutzera emateko aurrera eramandako kanpaina kopurua.<br>• Kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Berdintasunerako Batzordeak kanpainen arrakastarekiko duen pertzepzioa. |
| **1.6.1.5** | • Indarkeriaren aurkako udal protokoloa ebaluatzeko erakundeen arteko koordinazio egiturek burututako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ebaluazio bilera hauetan parte hartu duen parte hartzaile kopurua sexua, partaide den udal arlo edota erakundea eta genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Ebaluazio bilera hauetan identifikatutako hobekuntza kopurua.<br>• Identifikatutako hobekuntzetatik modu arrakastatsuan ezarritakoen proportzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| UDALA | INDARKERIA |
| **Helburu Orokorra** | **1.7** Indarkeriaren desagerpenean herritarrak inplikatzea. |
| **Helburu zehatzak** | **1.7.1** Indarkeria egoerak identifikatu eta prebenitzeko bitartekoak ezartzea. |

**Estrategiak**

- Indarkeriaren prebentzio eta identifikazio goiztiarrean inplikatzea Udaleko langileak zein udalerriko herritarrak.
- Indarkeriari buruzko eztabaida soziala bultzatzea, honen aurkako jarrerak sendotzeko.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Sentsibilizazio eta informazioa. | **1.7.1.1** Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak aurrera eraman indarkeriaren prebentzio eta identifikazio goiztiarra errazteko. | | | | |
| | **1.7.1.2** Genero indarkeriaren kontrako Babes Integralerako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren edukiak zabaldu (hitzaldiak, gidak…) | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

- Berdintasun Zerbitzua
- Udalaren arlo guztiak
- Udaltzaingoa
- Ertzaintza
- Igorreko Osasun zentroa
- Oinarrizko Gizarte-zerbitzuak
- Igorreko Hezkuntza Zentroak
- Epaitegia

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **1.7.1.1** | • Indarkeriaren prebentzioa eta identifikazio goiztiarra errazteko herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina kopurua.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauetako hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak sentsibilizazio kanpaina hauen arrakastarekiko duen pertzepzioa. |
| **1.7.1.2** | • Genero indarkeriaren kontrako Babes Integralerako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren edukia zabaltzeko euskarri kopurua.<br>• Genero indarkeriaren kontrako Babes Integralerako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren edukia zabaltzeko euskarri hauen hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

## e. Kultura, Euskara eta Kirol arloa

### Sarrera

Mendebaldeko gizarteetan aisialdia, ohiko lan esparrutik kanpo libreki aukeratutako jarduera gozagarri eta atsegingarria dela ulertzen dugu. Betebehar eta erantzukizunak definitutako denboratik kanpo, norbere interes, motibazio eta nahien arabera egituratzen dena. Gaur egun, hala ere, lanarekin kontrajartzen da oraindik. Aisialdiari dagokionean ordea, derrigorrezkoa da lana eta enpleguaren arteko bereizketa egitea. Izan ere, enplegua (sozialki errekonozitu eta ordaindutako lana) duten pertsonen artean eztabaida ezinezko eskubidea bada ere, era esklusiboan etxeko lanak eta zaintzaren ardura dutenei buruz hitz egiterakoan ez da gauza bera gertatzen. Izan ere, aktibitate domestikoak ez du aktibitate laboralak bezalako etenik planteatzeko batere aukerarik uzten, ez du denbora "soberakinik" erregistratzen[6] eta hortaz, ordaindutako lanik ez duten etxeko andreen kasuan adibidez, ia ezinezkoa da lana eta aisiaren arteko banaketa egitea. Horregatik, ezinbestekoa da, aisialdiari buruz dihardugunean genero ikuspuntutik abiatzea, emakumeak baitira, enplegua izanda ere, esparru domestikoan etxeko lanen eta zaintzaren pisu handiena euren gain hartzen dutenak. Ezin dezakegu ahaztu gainera, aisialdia pertsonaren garapenean eta ongizate fisiko zein psikologikoan oinarrizkoa izateaz gain, komunitatearekiko integrazioa eta gizarte harremanen garapena ahalbidetzeko berebiziko garrantzia duen esparrua ere badela.

[6]Murillo, Soledad (1996) El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio. Madrid: Siglo XXI.

Aisialdiari eta parte hartzeari buruz interesgarriak diren hainbat datu erakutsi dizkigu diagnostikoak. Orokorrean, emakumeek aisialdi jarduera gehiagotan parte hartzen dute gizonezkoek baino. Aisialdiko kirol esparruan emakumeen jarduera handiagoa da (Udal Kiroldegiko erabiltzaileen %64a emakumeak dira) eta kultur jardueratan emakumeek presentzia nabarmenagoa dute; kultur baliabideak (liburutegia, ikasgelak ...) era nabarmenagoan erabiltzen dituzte eta Udaleko kultur eskaintza (ikastaroak, antzerkia, zinea, ikuskizu-

nak …) kontsumitzen dutenen artean ere gehiengoa dira.

Igorren mugimendu soziokultural nabarmena dago: 22 elkarte daude, kultura, kirola eta gai sozial edota gizarte harremanekin zerikusia dutenak. Hauetako zenbait elkartek eskualde mailan jarduten dute, izan ere, udalerriak eskualdeko erdigune lez jokatzen du, elkartegintza sustatzen duten baliabide ugari baititu: kirol jarduerarako azpiegiturak, elkarteak biltzeko gelak, ikuskizunetarako aretoa eta ekintzetarako gelak, besteak beste. Elkarteetako partaidetza, orokorrean, nahiko parekatua da: partaideen %43-a emakumeak dira eta %57-a gizonezkoak. Halere, sexuaren araberako aldeak daude elkarteen jardun esparruaren arabera, hau da, partaidetzaren segregazioa dagoela adierazten digu diagnostikoak. Esaterako, kirol elkarteetan gizonezkoak nagusi diren bitartean (partaideen %82-a), gizarte edo gai sozialekin lotutako elkarteetan emakumeen presentzia da nabarmenagoa (partaideen %60-a).

Gizon eta emakumeen parte-hartze ereduak ezberdinak dira, era berean. Orokorrean, herriko dinamika desberdinetan emakumeen inplikazioa altua den arren, beraien jarduera ezkutuan garatzen dute gehienetan, beraien burua bigarren lekuan mantenduz, ageriko ordezkaritzatik kanpo. Gizonezkoen presentzia agerikoa den parte hartze ereduetan gertatzen da: egituratutako taldeetan, Udaletik irekitako erabakimen espazioetan, eta Udala eta herritarren arteko bitartekaritza lanetan, besteak beste. Gainera, diagnostikoaren bitartez, emakumeek betetzen duten zaintzaile rolak, herriko dinamika sozial desberdinetan duten inplikazio maila baldintzatzen duela egiaztatu dugu. Bestalde, esan beharra dago baita ere, emakume talde egituraturik ez dagoen arren (eta ezta talde feminista egituraturik ere), adin eta egoera desberdinetako emakumeek talde informal ugaritan hartzen dutela parte. Emakume talde hauek indartzea eta ahalduntzea garrantzitsua da udalerriko esparru publikoan zein agenda politikoan beraien parte-hartzea eraginkorragoa izan dadin.

**Mainstreaming** ardatzaren bitartez, berdintasun ikuspegia Udaleko kultura, euskara eta kirol sailetako eguneroko lanean barneratzea da asmoa. Arlo hauek zerbitzu eta programa ugari eskaintzen dizkiete herritarrei eta kontu handia izan behar dugu genero estereotipoak erreproduzitu ez ditzaten. Horretarako, ezinbestekoak dira langileen prestakuntza espezifikoa eta baita beraien eguneroko lanean genero ikuspegia aintzat hartzea ahalbidetuko duten lanabesak sortzea ere. Bestalde, herriko elkarteen jardunean ere berdintasun ikuspegia barneratzeko ekintzak planteatu ditugu.

**Ahalduntzearen** ardatzaren bitartez, bi norabidetan lan egiteko neurriak proposatzen ditugu. Alde batetik, errekonozimendu historikoa landuko dugu, kultur eta kirol arloan alboratuta egon diren emakumeen jarduerak ezagutzera eman eta hauek indartzeko. Eta bestetik, aisialdi ekintzen bitartez, emakumeen kontzientziazioa eta gaitasunak lantzeko prozesua abiaraziko dugu, esparru publikoan beraien presentzia eta parte hartzea indartzeko asmoz.

**Erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna** da landuko dugun beste ardatzetako bat. Emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako gizarte eredurantz aurrerapausoak emateko ezinbestekoa deritzogu gizartean erantzunkidetasun baloreak bultzatzeari, etxeko lanen eta zaintzaren banaketa orekatuak baino ez duelako bermatuko gizon eta emakumeak aukera berdintasunean bizitzea.

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **2.1** Udaleko kultura, euskara eta kirol arloetan genero ikuspegia txertatzea. |
| **Helburu zehatzak** | **2.1.1** Kultura, euskara eta kirol arloetako plangintza, programazio eta ebaluazioak genero ikuspegia kontuan hartuz egitea. |

**Estrategiak**

- Kultura, euskara eta kirol arloetatik egiten diren plangintza, programazio eta ebaluazioetan genero ikuspegia txertatzea abian dauden ekintzetarako, zein etorkizunerako, proposamen eta gomendioak eskainiz.
- Kultura, euskara eta kirol arloetan jarduten duten langileak genero ikuspegian trebatzea.
- Biztanleria talde desberdinen ezaugarri, beharrizan eta nahiak azaleratzea eta hauek kontuan hartzea, kultura, euskara zein kirol arloetatik burutzen diren ekintzetan, batez ere, emakumeei dagokienean.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Sentsibilizazio eta informazioa | **2.1.1.1** Kultura, kirol eta euskara arloetan genero ikuspegia txertatzeak duen garrantzia azaleratu, horretarako arlo bakoitzeko urteroko ekintza planetan proposamenak eginez. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **2.1.1.2** Liburutegian berdintasun eta genero gaien txokoa sortu, liburutegiko aurrekontuaren parte bat horretara bideratuz. | | | | |
| Trebakuntza | **2.1.1.3** Kultura, euskara eta kirol arduradunak arlo hauetan egiten diren programa zein jardueren plangintza eta garapenean genero ikuspegia txertatzeko trebatu. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **2.1.1.4** Kultura, euskara eta kirol arloko programa eta jarduerak diseinatzean, planifikatzean eta inplementatzean izan beharreko jokabide eta jarraibide onak bilduko dituen barne hedapenerako gida egin eta administrazioko eta azpikontratatuiko enpresetako pertsonalari ezagutzera eman. | | | | |
| Jakintza | **2.1.1.5** Udalerriko emakume eta gizonen aisialdiari buruzko diagnostikoa egin genero ikuspuntutik beraien zaletasun, beharrizan eta igurikapen espezifikoak ezagutzeko. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **2.1.1.6** Diagnostikoan lortutako informazioa kontuan hartuz, kultur eta kirol programazioa osotu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasunerako Zerbitzua.
-Kultura eta Kirol Arloa
-Euskara Arloa.

| Ekintza | Adierazleak |
| --- | --- |
| **2.1.1.1** | • Kultura, kirol eta euskara arloetan genero ikuspegia txertatzeko Berdintasunerako Zerbitzuak egindako proposamen kopurua.<br>• Kultura, kirol eta euskara arloek urteroko ekintza planetan zehaztutako ekimenetatik, genero ikuspegia integratuta dutenen proportzioa. |
| **2.1.1.2** | • Liburutegiko materialetik, berdintasun eta genero gaien txokoan dagoenaren proportzioa.<br>• Liburutegiko aurrekontutik, genero gaietara bideratukoa partidaren proportzioa. |
| **2.1.1.3** | • Kultura, euskara eta kirol arloetako arduradunei, beraien arloetan genero ikuspegia barnera dezaten eskainitako trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen langile kopurua sexua eta karguaren arabera bereizita.<br>• Udal arlo hauetako arduradunen trebakuntzarekiko asebetetze maila, sexua eta karguaren arabera bereizita. |
| **2.1.1.4** | • Kultura, euskara eta kirol arloko programa eta jarduerak diseinatzean, planifikatzean eta inplementatzean izan beharreko jokabide eta jarraibide onak bilduko dituen barne hedapenerako gida kopurua.<br>• Gida hauek ezagutzera emateko egindako ekimen kopurua.<br>• Kultura, euskara eta kirol arloetako langileen gidekiko asebetetze maila, sexua eta karguaren arabera bereizita. |
| **2.1.1.5** | • Udalerriko emakume eta gizonen aisialdiari buruzko diagnostikotik identifikatutako beharrizan kopurua. |
| **2.1.1.6** | • Kultur eta kirol ekimenetatik, diagnostikoan identifikatutako informazioa kontuan hartuz aurrera eramandakoen proportzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **2.2** Udalerrian kultura, euskara eta kirol arloetan diharduten elkarteetan berdintasun printzipioa bermatzea. |
| **Helburu zehatzak** | **2.2.1** Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarteetako jarduera eta barne funtzionamenduan berdintasun printzipioa bermatzea. |

**Estrategiak**

- Elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzen esleipen prozesuan, elkarteen jarduera eta barne funtzionamenduan berdintasun printzipioa bermatzen dela ziurtatzen duten irizpideak definitu eta indarrean jartzea.
- Udalerriko elkarteetan berdintasun printzipioa bermatzea ahalbidetzeko baliabideak eskaintzea.
- Elkarteetan berdintasun printzipioa bermatzea ahalbidetuko duten irizpideak kontuan hartu eta aldaketak gertatzen direla egiaztatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Sentsibilizazio eta informazioa | **2.2.1.1** Elkarteekin sentsibilizazio eta kontzientziazio lana egin, beraien jardunean berdintasun ikuspegia barnera dezaten. | | | | |
| Araua | **2.2.1.2** Diru laguntza deialdietan berdintasun printzipioa bermatzea ahalbidetuko duten irizpideak adostu. | | | | |
| Prestakuntza | **2.2.1.3** Udalerriko elkarteetako partaideak berdintasunari buruzko oinarrizko kontzeptuetan trebatu. | | | | |
| Jarraipena | **2.2.1.4** Elkarteen jarduera eta barne funtzionamenduan berdintasun printzipioa bermatzen dela egiaztatu (adibidez, diru-laguntzen justifikazio memorien bitartez). | | | | |
| | **2.2.1.5** Berdintasunaren alde aritzen diren elkarteen jardueren errekonozimendua burutu (adibidez sari banaketen bitartez). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun Zerbitzua
-Kultura eta Kirol Arloa
-Euskara Arloa.
-Udalerriko Elkarteak.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **2.2.1.1** | • Elkarteekin beraien jardunean berdintasun ikuspegia barneratzeko egindako bilera kopurua.<br>• Bilera hauetan parte hartu duen elkarte kopurua, berdintasun ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **2.2.1.2** | • Diru laguntza deialdietan berdintasun printzipioa bermatzea ahalbidetuko duen irizpide kopurua. |
| **2.2.1.3** | • Udalerriko elkarteetako partaideak berdintasunari buruzko oinarrizko kontzeptuei buruz kontzientziatzeko, hauei zuzendutako trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua eta elkartearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen trebakuntzarekiko asebetetze maila. |
| **2.2.1.4** | • Beraien jardueran berdintasunaren aldeko ekintzak burutu dituzten elkarteen proportzioa, berdintasun ikuspegiarekiko duten sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak elkarteek berdintasunaren alde egindako ekintzen inguruan duen pertzepzioa. |
| **2.2.1.5** | • Elkarteek berdintasunaren alde egin dituzten ekimenak errekonozitzeko burututako ekimen kopurua. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA | | AHALDUNTZEA | | | |
| **Helburu Orokorra** | **2.3** Emakumeek kultura, euskara eta kirol arloan duten presentzia areagotzea. | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **2.3.1** Emakumeen presentzia handitzea kultur, euskara eta kirol ekimenetan. | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | |
| - Emakumeek udalerriko eguneroko bizitzan, gaur egun eta iraganean egindako ekarpenak ezagutzera ematea.<br>- Kultura, euskara eta kirol arloetan errepresentazioa eta protagonismoa duten esparruetan (aurkezpenetan eta lehiaketetako epai-mahaietan, esaterako) emakume eta gizonen parekidetasunean oinarritutako partaidetza bultzatzea.<br>- Esparru publikoan, emakumeen presentzia, partaidetza eta erreferentzialitatea areagotzea | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** |
| Araua | **2.3.1.1** Emakume eta gizonen presentzia eta erreferentzia orekatua bermatu kultura, euskara eta kirol arloetan Udalak antolatutako ekimenetan. | | | | |
| Jakintza | **2.3.1.2** Emakumeek udalerriko historia eta dinamiketan izandako protagonismoa berreskuratu ikerketa lanak egiteko laguntzak eskainiz (ikerketa beka). | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **2.3.1.3** Udalerriko emakumeen lorpenak eta ibilbidea azaleratzeko hedapen materiala sortu (liburuak, CD-ak, egutegiak) | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | |
| -Kultura Arloa<br>-Euskara Arloa<br>-Udalerriko Elkarteak | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **2.3.1.1** | • Udaleko kultura, euskara eta kirol ekimenetatik, emakume eta gizonen presentzia eta erreferentzia orekatua bermatzen dutenen proportzioa. |
| **2.3.1.2** | • Emakumeek udalerriko historia eta dinamiketan izandako protagonismoa berreskuratzeko egindako ikerketa kopurua.<br>• Emakumeek udalerriko historia eta dinamiketan izandako protagonismoa berreskuratzeko egindako ikerketei esker, berreskuratutako erreferente eta ekarpen kopurua. |
| **2.3.1.3** | • Udalerriko emakumeen lorpenak eta ibilbidea azaleratzeko sortutako material kopurua.<br>• Materialaren hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
| --- | --- |
| KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA | AHALDUNTZEA |

| | |
| --- | --- |
| **Helburu Orokorra** | **2.4** Emakumeek esparru publikoan duten parte-hartzea indartzea. |
| **Helburu zehatzak** | **2.4.1** Emakumeen presentzia espazio publikoan handitzera eta indartzera bideratutako ekintzak burutzea. |

**Estrategiak**

- Emakumeen gaitasun sozialak indartzea esparru publikoan duten presentzia eta parte-hartzea indartzeko, kontuan hartuz emakumeen heterogeneotasuna eta parte hartze eredu desberdinak.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
| --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **2.4.1.1** Emakumeen jakintza eta tradizionalki egokitutako funtzioak ezagutzera eman eta beraien errekonozimendu soziala indartzeko ekintzak burutu (zaintza tailerrak, esaterako). | | | | |
| Jakintza | **2.4.1.2** Emakume taldeekin bilerak egin esparru publikoan jardutearen garrantziaz kontzientziatzeko eta horretarako dituzten oztopo, muga eta beharrizanak identifikatzeko. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **2.4.1.3** Emakumeek esparru publikoan parte-hartzeko dituzten oztopoen gaineko kontzientziazioa eta hauek gainditzeko gaitasun sozialen indartzera bideratutako programak diseinatu eta martxan jarri. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasunerako zerbitzua.
-Kultura eta Kirol Arloak.
-Euskara Arloa.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **2.4.1.1** | • Emakumeen jakintza eta tradizionalki egokitutako funtzioak ezagutzera ematera eta beraien errekonozimendu soziala indartzera bideratutako ekintza kopurua.<br>• Ekintza hauetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Ekintza hauekiko parte hartzaileen asebetetze maila, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **2.4.1.2** | • Emakume taldeekin esparru publikoan jardutearen garrantziaz kontzientziatzeko eta horretarako dituzten oztopoak identifikatzeko egindako bilera kopurua.<br>• Bilera horietan parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Bilera hauen bidez identifikatutako proposamen eta lan-aukera kopurua. |
| **2.4.1.3** | • Emakumeek esparru publikoan parte-hartzeko dituzten oztopoen gaineko kontzientziazioa bultzatu eta hauek gainditzeko gaitasun sozialen indartzera bideratutako ekintza kopurua.<br>• Ekintza hauetan parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Ekintza hauetan parte hartu duen emakumeen ekintzekiko asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

<table>
<tr><th colspan="2">ESPARRUA</th><th colspan="5">ARDATZA</th></tr>
<tr><td colspan="2">KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA</td><td colspan="5">ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA</td></tr>
<tr><td>Helburu Orokorra</td><td colspan="6">2.5 Erantzunkidetasuna eta zaintzaren inguruko ardura soziala sustatzea.</td></tr>
<tr><td>Helburu zehatzak</td><td colspan="6">2.5.1 Erantzunkidetasuna eta zaintzaren inguruko ardura soziala sustatzea ahalbidetuko duten gizarte eta kultur arloko ekimenak bultzatu eta elkar harreman espazioak sortu.</td></tr>
<tr><td colspan="7">Estrategiak</td></tr>
<tr><td colspan="7">- Kultura, euskara eta kirol arloetatik familiei zuzentzen zaizkien kanpaina edota mezuen bitartez zaintza lanen inguruan dauden genero estereotipoak gainditzerako bidean lan egitea.</td></tr>
<tr><td colspan="7">Ekintzak</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Lanabesa</td><td rowspan="2">Ekintzak</td><td colspan="4">Kronograma (2011-2014)</td></tr>
<tr><td>11 1</td><td>2</td><td>13 1</td><td>4</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Sentsibilizazio eta informazioa</td><td>2.5.1.1 Erantzunkidetasuna, bateragarritasuna eta parekidetasunean oinarritutako denboraren erabilera berriak bultzatuko dituzten ekintzak burutu.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2.5.1.2 Udaleko kultura, euskara eta kirol arloetatik aurrera eramaten diren hedapen-jardueretan erantzunkidetasuna sustatzera bideratutako irudi eta mezuak txertatu.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Zerbitzu eta baliabideak</td><td>2.5.1.3 Kultura, euskara eta kirol arloetatik egiten diren edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturaletan kontziliazioa errazteko baliabideak txertatu.</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="7">Inplikatutako sail edota erakundeak</td></tr>
<tr><td colspan="7">-Euskara Arloa<br>-Kultura Arloa<br>-Berdintasunerako Zerbitzua</td></tr>
</table>

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **2.5.1.1** | • Erantzunkidetasuna, bateragarritasuna eta parekidetasunean oinarritutako denboraren erabilera berriak bultzatzera bideratutako ekintza kopurua.<br>• Ekintzetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **2.5.1.2** | • Udaleko kultura, euskara eta kirol arloetatik egiten diren hedapen-jardueretan erantzunkidetasuna sustatzen duten irudi eta mezuen proportzioa.<br>• Hedapen jardueren hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **2.5.1.3** | • Kultura, euskara eta kirol arloetatik egiten diren edo diruz laguntzen diren programa eta jarduera soziokulturaletatik kontziliazioa errazten duten baliabideak eskaintzen dituztenen proportzioa. |

# f. Hezkuntza

## Sarrera

Ume eta gazteen sozializazioan duen protagonismoa dela eta, eskolari leku erabakigarria egozten diogu berdintasunari buruz hitz egiterakoan. Sexismoa eta bereizketaren kontrako jarrera eta ekimenak bultzatzeko leku aproposa dela kontsideratzen dugu. Era berean, herrialde edo gizarte talde baten eskolatze mailak eta burututako ikasketen ezaugarriek, bere garapen ekonomiko eta soziala islatzen dute. Berdintasunean oinarritutako gizarte eredua bultzatu nahi badugu, beraz, ezinbestekoa da androzentrismoan eta genero ezberdintasunean oinarritzen ez diren baloreak finkatzea ume eta gazteengan. Horretarako nahitaezkoa da hezkidetzan oinarritutako hezkuntza eredua bultzatzea.

Autonomia eta garapen pertsonalerako ezinbestekoak diren balore, gaitasun eta ezagutzen sozializazioan oinarritzen den berdintasunerako hezkuntza eredua da hezkidetza. Genero estereotipoak eta hauen araberako baldintzapena alde batera utzi eta pertsonen ezaugarri anitzak oinarritzat hartzen dituen berdintasuna bultzatzen du. Printzipio eta egitura androzentriko eta patriarkalak dituen gizarte ereduaren barne dago hezkuntza sistema, eta horregatik, genero estereotipoen baldintzapena erreproduzi dezake, hezkidetza printzipioak aintzat harturik erroko hausnarketa egin eta hezkuntza ereduaren eraldaketa aurrera eraman ezean. Berdintasun Planetik hezkidetzan oinarritutako hezkuntza eredua bultzatuko dugu, hezkuntza formaleko zentroetan zein ume eta gazteei zuzendutako hezkuntza ez formaleko programa eta proiektuetan.

Diagnostikoaren bitartez, genero estereotipoen baldintzapenak oraindik orain, ume eta gazteen ikasketa aukeraketan eragin nabarmena duela atzeman dugu. Alde batetik, ikasketa aukeraketaren segregazioa esanguratsua da: mutilek ikasketa teknikoak hautatzen dituzte neurri handiagoan eta neskek humanistika eta gizarte

gaiekin erlazionatutakoak. Eskola orduetatik kanpoko aisialdian ere genero baldintzapena indartsua dela egiaztatu dugu gazteekin egindako taldekako elkarrizketetan. Gertaera hau islaturik geratzen da emakume eta gizonek elkarteetan duten parte hartzean ere (ikus kultura, euskara eta kirol arloa). Diagnostikoaren bitartez atzemandakoaz gain, ez dugu ahaztu behar hedabideek egun daukaten indarra genero identitateen egituraketan; feminitatearen eta maskulinitatearen irudi estereotipatuak igortzen dituzte. Beraz, berdintasunerako bidean, berebiziko garrantzia dauka ume eta gaztei hezkuntzaren bitartez sexismotik eta genero estereotipoetatik kanpo dagoen gizarte eredua eskaintzeak.

**Mainstreaming** ardatzaren bitartez berdintasun baloreetan oinarritzen den hezkuntza eredua bultzatu nahi dugu: hezkidetza. Bi norabidetan lan egitea proposatzen dugu. Batetik, bertako hezkuntza zentroetan hezkidetzan oinarritutako proiektuak txertatuz. Eta bestetik, ume eta gazteei zuzendutako programa eta baliabideetan, zeharka, berdintasun ikuspegia landuz. 2010-2011 urte bitartean bi lan ildo hauek koordinatzeko eta lan moduak zehazteko sentsibilizazio eta koordinazio bilerak egitea proposatu dugu etorkizunerako lanmoduak zehazteko asmoz.

Gainera, gaur egun, gizarteak eredu konkretuak definitzen ditu emakume edo gizon izateko, gure garapen integrala oztopatuz. Baldintzapen hauek gainditzeko, **ahalduntze** ardatzaren bitartez, ume eta gazteekin bi esparrutan jardutea proposatu dugu: aisialdian eta orientazio akademikoan.

Etxeko  eta zaintza lanen **erantzunkidetasuna** bultzatzea beharrezkoa da emakume eta gizonen arteko berdintasun efektiboa lortzeko bidean. Horregatik, guztiz inportantea da txikitatik etxeko eta zaintza lanen erantzunkidetasunaren baloreak bultzatzea. Aldi berean, erantzunkidetasun baloreetan oinarritzen den gizarte eredua bultzatzeko beharrezkoa da eremu honetan gizonezkoak ere inplikatzea eta beraien parte-hartzea areagotzera bideratutako

neurriak hartzea.

Genero berdintasunaren eta egoera aniztasunaren errespetuan oinarritutako gizarte eredua bultzatu, eta genero indarkeria prebenitzeko, ezinbestekoa dugu balore sexistetan oinarritzen ez den gizarte eredua eraikitzea. Horretarako, **indarkeriaren** inguruko ardatzaren bitartez, prebentzioa landuko dugu hezkuntzan, helburu horretara bideratutako programa zehatzak sortuz.

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | MAINSTREAMING-A |
| **Helburu Orokorra** | **3.1** Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza eredua sustatzea bai hezkuntza formalean eta baita ez formalean ere. |
| **Helburu zehatzak** | **3.1.1** Hezkuntza formaleko programa guztiak hezkidetza kontuan hartuz garatzeko laguntza eskaintzea. |

**Estrategiak**

-Hezkuntza arloko erakunde eta eragileekin (hezkuntza formala eta ez formala kontuan hartuz) lan-taldea osotzea, estrategia bateratuak jarraituz eredu hezkidetzailean oinarritutako proiektu eta programak lantzeko.
- Hezkuntza formaleko zentroak hezkuntza arloan berdintasunaren alde eta genero estereotipoen kontra jarduteak duen garrantziaz ohartaraztea.
-Hezkuntza formaleko zentroetako programa eta ekintzak hezkidetza kontuan hartuz garatzeko lanabesak eskaintzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.1.1.1** Hezkuntza formal eta ez formaleko agenteekin hezkidetzaren inguruko proiektu bateratuak aurrera eramateko lantaldea sortu. | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **3.1.1.2** Hezkuntza zentroak hezkidetzaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio kanpainak egin (klaustroan Berdintasun Planerako diagnostikoa aurkeztu edota eztabaida guneak sortuz, besteak beste). | | | | |
| | **3.1.1.3** Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak ezagutzera eman hezkuntza zentroetan. | | | | |
| | **3.1.1.4** Hezkuntza zentroei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko trebakuntza eskaini. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.1.1.5** Hezkuntza zentroei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko aholkularitza teknikoa eskaini (hezkidetza proiektuak garatzeko dauden diru-laguntzen inguruan informatuz edota proiektuak garatzeko orduan laguntza teknikoa eskainiz). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Ignazio Zubizarreta Lehen Hezkuntza Ikastetxea
-Arratia Institutua IES.
-Berritzegunea.
-Berdintasunerako Zerbitzua.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| 3.1.1.1 | • Hezkuntza formal eta ez formaleko agenteekin hezkidetzaren inguruko proiektu bateratuak aurrera eramateko lantaldea osotzeko egindako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Lantalde honetan parte hartzen duen erakunde eta eragile kopurua, genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Lantalde honetatik sortutako lan ildo bateratu kopurua. |
| 3.1.1.2 | • Hezkuntza zentroak hezkidetzaren garrantziaz ohartarazteko egindako sentsibilizazio ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio ekimenetan parte hartu duen irakasle kopurua sexua, kargua eta genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio ekimenekiko parte hartzaileen asebetetze maila sexua, kargua eta genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.1.1.3 | • Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak ezagutzera emateko aurrera eramandako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak ezagutzera emateko ekimenenen hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.1.1.4 | • Hezkuntza zentroei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko eskainitako trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen irakasle kopurua sexua, kargua, hezkuntza zentroa eta zentroaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Irakasleek jasotako trebakuntzarekiko duten asebetetze maila, sexua, kargua, hezkuntza zentroa eta zentroaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.1.1.5 | • Hezkuntza zentroei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzen laguntzeko eskainitako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Hezkuntza zentroek abian jarritako proiektuetatik, hezkidetzan oinarritutakoen proportzioa.<br>• Hezkidetza proiektuekiko hezitzaileen asebetetze maila, sexua, kargua, hezkuntza zentroa eta zentroaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **3.1** Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza eredua sustatzea bai hezkuntza formalean eta baita ez formalean ere. |
| **Helburu zehatzak** | **3.1.2** Hezkuntza ez formaleko programa guztiak hezkidetza kontuan hartuz garatzeko laguntza eskaintzea. |

**Estrategiak**

- Hezkuntza arloko erakunde eta eragileekin (hezkuntza formala eta ez formala kontuan hartuz) lan-taldea osotzea, estrategia bateratuak jarraituz eredu hezkidetzailean oinarritutako proiektu eta programak lantzeko.
- Hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileak beraien esparruan berdintasunaren alde eta genero estereotipoen kontra jarduteak duen garrantziaz ohartaraztea.
- Hezkuntza ez formaleko programa eta ekintzak hezkidetza kontuan hartuz garatzeko lanabesak eskaintzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.1.2.1** Hezkuntza formal eta ez formaleko agenteekin hezkidetzaren inguruko proiektu bateratuak aurrera eramateko lantaldea sortu. | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **3.1.2.2** Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak erakutsi hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileei. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.1.2.3** Hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko aholkularitza teknikoa eskaini. | | | | |
| | **3.1.2.4** Hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko trebakuntza eskaini. | | | | |
| | **3.1.2.5** Hezkidetza programak garatzeko laguntza eskaini hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileei (horretara bideratutako diru-laguntzei buruzko informazioaren inguruan orientazioa eskainiz, esaterako). | | | | |
| | **3.1.2.6** Hezkuntza ez formaleko eragile eta erakundeak hezkidetza programa eta ekintza konkretuak aurrera eramaten lagundu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Udaleko Hezkuntza Saila.
- Arratiako Mankomunitatea.
-Arratiako Gazte Plana.
-Guraso Elkarteak.
-Aisialdi Taldeak.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| 3.1.2.1 | • Hezkuntza formal eta ez formaleko agenteekin hezkidetzaren inguruko proiektu bateratuak aurrera eramateko lantaldea osotzeko egindako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Lantalde honetan parte hartzen duen erakunde eta eragile kopurua, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Lantalde honetatik sortutako lan ildo bateratu kopurua. |
| 3.1.2.2 | • Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak ezagutzera emateko aurrera eramandako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Hezkidetzaren inguruan dauden esperientzia eta materialak ezagutzera emateko aurrera eramandako ekimenenen hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.1.2.3 | • Hezkuntza ez formaleko hezitzaile eta eragileei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko eskainitako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Saio hauetako parte hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen saioekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Hezkuntza ez formalean zehaztutako esku-hartze lerroetatik, hezkidetzaren ikuspegia integraturik dutenen proportzioa. |
| 3.1.2.4 | • Hezkuntza ez formaleko eragile eta erakundeei hezkidetzaren aldeko apustuan esku-hartze lerroak definitzeko eskainitako trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetako parte hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen trebakuntza saioekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |

| | |
|---|---|
| **3.1.2.5** | • Hezkuntza ez formaleko erakunde eta eragileei hezkidetza programak garatzera zuzendutako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Hezkidetza programak garatzera zuzendutako saioetako parte hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen saioekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Hezkuntza ez formalean zehaztutako programetatik, hezkidetzaren ikuspegia integraturik dutenen proportzioa. |
| **3.1.2.6** | • Hezkuntza ez formaleko eragile eta erakundeek hezkidetza programa eta ekintza konkretuak aurrera eramaten laguntzeko saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna<br>• Hezkidetza programa eta ekintza konkretuak aurrera eramaten laguntzeko saioetako parte hartzaile kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen saioekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **3.2** Berdintasunaren baloreetan oinarritutako elkarbizitza ereduak indartzea ume eta gazteen artean. |
| **Helburu zehatzak** | **3.2.1** Aisialdiaren eta kirol praktiken dibertsifikazioa sustatzea. |

**Estrategiak**

- Eskolaz kanpoko jardueren bitartez, haur eta gazteen artean, genero estereotipoak indargabetzen dituzten kirol praktikak eta aisialdi eredua bultzatzea.
- Nesken interes eta parte-hartzea bultzatzen duten aktibitateei arreta berezia eskaintzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Informazioa eta sentsibilizazioa | **3.2.1.1** Genero estereotipoak indargabetzen dituzten kirol aktibitate eta jarduerak aurrera eramateak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio kanpainak egin hezkuntza zentro eta guraso elkarteekin. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.2.1.2** Eskolaz kanpoko jarduerak nesken eta mutilen arteko parekidetasunean oinarritzen diren harremanak bultzatuz eta interes zein gaitasun aniztasuna kontuan hartuz bideratzeko aholkularitza teknikoa eskaini guraso elkarteei. | | | | |
| | **3.2.1.3** Udalerriko ume eta gazteen egoera eta aukera aniztasuna kontuan hartuz (gazte etorkinak, gaitasun murriztua dutenak…), berdintasun baloreak bultzatzen dituzten jarduerak burutzeko aholkularitza teknikoa eskaini aisialdi eremuko eragile eta erakundeei. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun Zerbitzua.
-Udaleko Hezkuntza Saila.
-Arratiako Mankomunitatea.
-Arratiako Gazte Plana.
-Udalerriko Aisialdi Taldeak.
-Guraso Elkarteak.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| 3.2.1.1 | • Genero estereotipoetatik aske dauden aktibitate eta jarduerak aurrera eramateak duen garrantziari buruz kontzientziatzeko aurrera eramandako sentsibilizazio ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio ekimenen hartzaile den guraso kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio ekimenen hartzaile den irakasle kopurua, sexua, kargua, hezkuntza zentro edo erakundea eta hezkuntza zentro edo erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio ekimenekiko gurasoen asebetetze maila, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio ekimenekiko irakasleen asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.2.1.2 | • Guraso elkarteei, parekidetasunean oinarritzen diren eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen laguntzeko eskainitako aholkularitza teknikorako bileren ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Eskolaz kanpoko jardueretatik, ume eta gazteen parekidetasuna bermatzen dutenen proportzioa.<br>• Parekidetasuna bermatzen duten eskolaz kanpoko jardueratako parte hartzaile kopurua sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita<br>• Parekidetasuna bermatzen duten eskolaz kanpoko ekintzekiko parte hartzaileen asebetetze maila sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita. |
| 3.2.1.3 | • Ume eta gazteekin lanean aritzen diren aisialdi eremuko eragile eta erakundeei, berdintasun baloreak bultzatzen dituzten jarduerak burutzen laguntzeko eskaini zaien aholkularitza teknikorako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Aisialdi eremuko eragile eta erakundeek aurrera eramandako jardueretatik, berdintasun baloreak eta aniztasuna integraturik dutenen proportzioa.<br>• Berdintasun baloreak eta aniztasuna integraturik duten jardueretan parte hartzen duen ume eta gazte kopurua sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **3.3** Ikasketa aukeraketaren genero segregazioa ekiditea. |
| **Helburu zehatzak** | **3.3.1** Ikasketa aukeraketa guztien balio soziala azpimarratzen duten ekimenak bultzatzea genero estereotipoak gaindituz. |

**Estrategiak**

- Gizon eta emakume eredu desberdinen erreferentziak eskaintzea eta neska edo mutil izateko eredu egoki bakar bat ez dagoela transmititzea ume eta gaztetxoei.
- Egun mantentzen den sexuaren araberako ikasketa eta profesio aukeraketa segregazioa gainditzeko aurrerapausoak ematea.
- Gurasoak genero baldintzapena gainditzeko eragile aktibo bihurtzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Jakintza | **3.3.1.1** Ikasleen ikasketa aukeraketaren jarraipena egin. | | | | |
| Informazioa eta sentsibilizazioa | **3.3.1.2** Ikasketak zein profesioa aukeratzerako orduan orientazio ez sexista eskaintzeko ekintzak antolatu hezkuntza zentroetan. | | | | |
| | **3.3.1.3** Gurasoekin ikasketa aukera desberdinak azaltzeko eta genero araberako baldintzapena ikustarazteko ekintzak burutu (mintegiak, eztabaida guneak, gidak …). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun zerbitzua.
-Arratiako Institutua IES.
-Ignazio Zubizarreta Lehen Hezkuntza Ikastetxea.
-Guraso Elkarteak.
-Arratiako Udalen Mankomunitatea.

| Ekintza | Adierazleak |
| --- | --- |
| **3.3.1.1** | • Ikasleen ikasketa eta lanbide aukeraketari buruzko informazioa jasotzeko egindako datu bilketa kopurua eta hauen maiztasuna. |
| **3.3.1.2** | • Ikasketa zein profesioaren aukeraketa ez sexista bultzatzeko egindako ekintza kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ekintza hauetan parte hartu duen gazte kopurua sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen ekintzekiko asebetetze maila, sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita. |
| **3.3.1.3** | • Gurasoekin ikasketa eta lanbide aukeraketa ez sexistaren inguruan hausnarketa egiteko aurrera eramandako jarduera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Jarduera hauetan parte hartu duen guraso kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Gurasoek jarduerekiko duten asebetetze maila, sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA |
| **Helburu Orokorra** | **3.4** Etxeko lanetan eta zaintzan erantzunkidetasuna bultzatzea. |
| **Helburu zehatzak** | **3.4.1** E txeko lanen eta zaintza lanen erantzunkidetasuna b ultzatzera b ideratutako jarduerak burutzea. |

**Estrategiak**

- Erantzunkidetasun baloreak bultzatzea ume eta gazteen hezkuntzan.
- Erantzunkidetasuna areagotzera bideratutako hezkuntza programak garatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **3.4.1.1** Gurasoei, irakasle eta hezitzaileei zuzendutako informazio programak eta sentsibilizazio kanpainak garatu erantzunkidetasuna lantzeko. | | | | |
| | **3.4.1.2** Erantzunkidetasunaren eguna ospatu udalerrian. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.4.1.3** Erantzunkidetasuna b ultzatzera b ideratutako hezkuntza programak garatzeko aholkularitza teknikoa eskaini. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Ignazio Zubizarreta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
-Arratia Institutua IES
-Arratiako Udalen Mankomunitatea.
-Guraso Elkarteak
-Aisialdi Taldeak.
-Udalerriko Elkarteak.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **3.4.1.1** | • Guraso, irakasle eta hezitzaileekin erantzunkidetasuna lantzeko egindako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauetan parte hartu duen guraso kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauetan parte hartu duen irakasle eta hezitzaile kopurua sexua, kargua, heziketa zentro edo erakundea eta heziketa zentro edo erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio kanpainekiko gurasoen asebetetze maila, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio kanpainekiko irakasle eta hezitzaileen asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **3.4.1.2** | • Udalerrian ospatutako erantzunkidetasun egun kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Egun honetan parte hartu duen elkarte, eragile eta erakunde kopurua, genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak erantzunkidetasun egunaren arrakastaren inguruko pertzepzioa. |
| **3.4.1.3** | • Erantzunkidetasuna bultzatzen duten hezkuntza programak garatzen laguntzeko eskainitako aholkularitza tekniko saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Aurrera eramandako edota diseinatutako hezkuntza programetatik, erantzunkidetasun baloreak bultzatzen dituztenen proportzioa.<br>• Aholkularitza tekniko saioetako parte-hartzaileen asebetetze maila, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HEZKUNTZA | | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **3.4** Etxeko lanetan eta zaintzan erantzunkidetasuna bultzatzea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **3.4.2** Haur eta gazteen zaintzan genero araberako rol banaketa tradizionala gainditzea eta ohikoa izan ez den gizonezkoen presentzia zein parte hartzea indartzea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| -Gizonezkoen presentzia fisiko zein sinbolikoa areagotzea haur eta gazteen zaintzara bideratutako zerbitzu eta materialetan.<br>-Aiten inplikazioa handitzea, sozializazio eta zainketa lanetan gizonezkoen garrantzia azpimarratuz eta gizon eta emakumeen artean eginbehar eta arduren elkarbanatzea bultzatuz. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
| | | | **11** | **12** | **13** | **14** |
| Araua | **3.4.2.1** Haur eta gazteen zaintzara bideratutako proiektu eta programen esleipenean gizonezkoen gutxienezko partaidetza bultzatu. | | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **3.4.2.2** Hezkuntza formalean eta ez formalean etxeko lanetan eta zaintzan parte hartzen duten gizonezkoak azaltzen dituen materialen hedapena bultzatu (liburuak, filmak, jokoak…) | | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.4.2.3** Eskolako eta eskolaz kanpoko aktibitateetan aiten parte-hartzea eta inplikazioa handitzera bideratutako ekimenak antolatu. | | | | | |
| | **3.4.2.4** Aitak beraien seme-alaben zaintza eta sozializazio lanetan trebatu (besteak beste, mintegi, ikastaro eta hitzaldien bidez). | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Ignazio Zubizarreta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.<br>-Arratia Institutua IES.<br>-Arratiako Mankomunitatea.<br>-Aisi Taldeak.<br>-Guraso Elkarteak | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| 3.4.2.1 | • Haur eta gazteen zaintzara bideratutako proiektu eta programetatik gizonezkoen gutxienezko partaidetza bultzatuz aurrera eramandakoen proportzioa.<br>• Gizonezkoen gutxienezko partaidetza bultzatuz aurrera eramandako haur eta gazteen zaintzara bideratutako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna. |
| 3.4.2.2 | • Hezkuntza formalean eta ez formalean etxeko lanetan eta zaintzan parte hartzen duten gizonezkoak azaltzen dituen materialen hedapena bultzatzeko egindako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ezagutzera emandako material kopurua.<br>• Ezagutzera emandako materialaren hartzaile kopurua sexua eta hezkuntza zentroaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Materialen hedapena egiteko ekimenekiko hartzaileen asebetetze maila, sexua, kargua, hezkuntza zentroa eta hezkuntza zentroaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| 3.4.2.3 | • Eskolako eta eskolaz kanpoko aktibitateetan aiten parte-hartzea eta inplikazioa handitzera bideratuta antolatutako ekimen kopurua.<br>• Ekimen hauetan parte hartu duen aita kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Aiten ekimenekiko asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| 3.4.2.4 | • Aitak beraien seme-alaben zaintza eta sozializazio lanetan trebatzeko egindako jarduera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Jarduera hauetan parte hartu duen aita kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Jarduerekiko aiten asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HEZKUNTZA | INDARKERIA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **3.5** Indarkeriaren prebentzioa lantzea ume eta gazteekin |
| **Helburu zehatzak** | **3.5.1** Hezkuntza zentroetan eta astialdiko jardueretan genero indarkeriaren prebentziorako programaketa egitea. |

**Estrategiak**

- Ume eta gazteekin, indarkeriaren prebentzioa lantzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasun eta errespetuzko baloreetan oinarritutako elkarbizitza bultzatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Baliabide eta zerbitzuak | **3.5.1.1** Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako programa diseinatu eta martxan jarri hezkuntza formal eta ez formaleko programa eta ekimenetan. | | | | |
| | **3.5.1.2** Haur eta gazteei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-programa osagarriak garatu (eskolaz kanpo egiteko tailerrak, jarduerak ...). | | | | |
| | **3.5.1.3** Gurasoei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako trebakuntza programak garatu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Ignazio Zubizarreta Lehen Hezkuntza Ikastetxea.
-Arratia Institutua
-Aisialdi Elkarteak
-Guraso Elkarteak
-Arratiako Gazte Plana
-Arratia Mankomunitateko Hezkuntza Arloa

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **3.5.1.1** | • Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako diseinatutako eta martxan jarritako programa kopurua eta hauen iraupena.<br>• Programa hauetan parte hartu duen ume eta gazte kopurua sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileek programekiko duten asebetetze maila, sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita.<br>• Hezkuntza zentroetako arduradun eta hezitzaileek programekiko duten asebetetze maila, sexua, kargua, hezkuntza zentroa eta hezkuntza zentroen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **3.5.1.2** | • Haur eta gazteei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako garatutako hezkuntza-programa osagarri kopurua eta hauen iraupena.<br>• Hezkuntza programa osagarri hauetan parte hartu duen ume eta gazte kopurua sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita.<br>• Ume eta gazteek hezkuntza programa osagarri hauekiko duten asebetetze maila, sexua, adina eta jatorriaren arabera bereizita.<br>• Hezkuntza ez-formaleko hezitzaileek programekiko duten asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita |
| **3.5.1.3** | • Gurasoei zuzendutako indarkeriaren prebentziorako garatutako trebakuntza saioetako ordu kopuru eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saio hauetan parte hartu duen guraso kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Gurasoen trebakuntza saioekiko asebetetze maila, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

## g. Lana

### Sarrera

Mendebaldeko gizarteetan XIX. mendeko industrializazio eta urbanizazio prozesuen eraginez, lana bi esparrutan banatu da. Alde batetik, etxetik kanpo, lan merkatuan egiten dena, baloratua eta soldatapekoa, batik bat gizonen esku egon dena. Eta bestetik, etxeko esparruan egiten dena, balio monetariorik ez duena eta emakumeen esku egon dena. Honela, tradizionalki, lantzat, nagusiki gizonezkoek eremu publikoan eta soldataren truke egin izan dutena definitu dugu eta lan merkatua eta honen denborak, figura maskulinoa aintzat hartuz egituratu dira, ugalketa eta zaintza lana doako lan-esku femeninoaren esku egon baita. Azkeneko hamarkadetan ordea, lan merkatuaren eraldaketa dela eta, emakumeen parte-hartzea ordaindutako lanean era nabarmenean hazi da, batez ere, sektore konkretu batzuetan. Honekin batera, geroz eta gehiago dira seme-alabak izan arren, ordaindutako lana uzten ez duten emakumeak ere. Emakumeen jarduerak merkatu laboralean baldintza bereziak betetzen ditu, hala ere, ez baita etxeko lanaren birbanatze orekatuarekin batera gertatu. Gaur egun, merkatu laboralean eta etxeko esparruan emakumeek duten protagonismo bikoitzak, ordaindutako lanean beraien parte-hartzea mugatzen du, diskriminazio eta ezberdintasun baldintzak erreproduzituz.

Igorreko kasuan ere, diagnostikoa egiterakoan konprobatu dugunez, lan baldintza eskasagoak eta soldata baxuagoak, eta segregazioa bertikal zein horizontala dira, besteak beste, emakumeek merkatu laboralean aurkitzen dutena. Honetaz gain, aldi berean, gaur egun, ezkutuan egiten den lana, zaintza eta etxeko lana, arazo iturri bihurtu dela adierazi digute andrazkoek diagnostikoan. Egun, ordaindutako lanaren exijentzien eta zaintza denboraren premien arteko tentsioak areagotu egin dira, eta gertaera honek gatazka egoerak sortzen ditu, bereziki emakumeengan. Emakumeek merkatu laboralean aukera berdintasunean parte hartzeko posibilitatea

izan dezaten beraz, ezinbestekoa da zaintza eta etxeko lanen ardura eta funtzioak emakume eta gizonen artean konpartitzea. Eta, aldi berean, bizitza familiarra, soziala eta laborala bateragarriak izan daitezen, beharrezkoa da lan eredua aldatzea eta horretarako nahitaezkoa da enpresariak sentsibilizatzea.

Diagnostikoak Igorreko merkatu laboralean dauden ezberdintasun egoerak agerian utzi ditu. Emakumeen aktibitate maila baxua nabarmena da (%32,92-koa). Genero rol banaketa tradizionalak indarrean jarraitzen du eta emakumeek etxeko lanak eta zaintza lanak beraien gain hartzen dituzte oraindik ia bere osotasunean. Honek lan merkaturako sarrera eta lan baldintzak erabakigarria den eran baldintzatzen ditu. Gizon eta emakumeen okupazio tasek ere agerian uzten dute Igorren genero ezberdintasunak Bizkaia eta EAE-n baino nabarmenagoak direla.

Udalerrian egindako kontratuek gainera, emakumeek behin-behinekotasun eta ezegonkortasun handiagoko egoeran lan egiten dutela erakusten digute: kontratu txandaketa handiagoa, lanaren segregazio horizontala eta lanaldi partzialen kopuru altuagoa dira horren adibidea. Lanaren segregazio horizontalari dagokionez, emakume gutxik egiten du lan Igorren industria sektorean; oso maskulinizatutako lan-eremua da hau, beraz. Egoera honen oinarrian Igorreko emakumeen formazioa bertako lan eskaintzara egokitzen ez dela egon daiteke. Merkataritza sektorean gehiengoa emakumea da ordea. Beraiek sektore honetan egiten duten lanetik irabazitako dirua gehienetan familiako soldata osagarri lez hartzeko joera dago oraindik, eta honek sektorearen lehiakortasun, berriztatze eta hobekuntza faltan eragiten du.
Lan eremuan egin beharreko esku-hartze guztiak 2012tik aurrera martxan jartzea proposatzen dugu. Izan ere, egun ez dago lan munduan berdintasun politikak abian jartzea ahalbidetuko duen zerbitzurik. Beraz, egokiena enplegurako eta formaziorako zerbitzua berriz abian jartzen denean, honi genero ikuspegia txertatzea dela

erabaki dugu.

**Mainstreaming** ardatza aipatutako zerbitzua abian jartzerakoan definituko dugu. Halere, lan eremuak emakumeen estatusean eta ongizatean duen garrantziaz oharturik, zenbait ekintza eta lan ildo definitzea komenigarria dela deritzogu.

Lan eremuko **ahalduntze** ardatzaren helburu nagusia emakume eta gizonek enplegurako duten sarrera orekatzea da. Horretarako, ezinbestekoa deritzogu bertako industrian emakumeek duten parte hartzea indartzeari. Aldi berean, aktibitateen segregazioaren ondorioz, emakumeen parte hartzea nabaria den sektoreen balorazio soziala bermatzea garrantzitsua dela uste dugu (zerbitzuak eta zaintza lanak esaterako).

Halaber, esparru domestiko-familiarreko arduren banaketa orekaturik gabe, ez dago merkatu laboralean aukera berdintasunez aritzerik. Horregatik, garrantzitsua deritzogu **erantzunkidetasunaren eta kontziliazioaren** ardatzaren bitartez, bi norabidetan lan egiteari. Emakumeek merkatu laboralean aukera berdintasunean parte hartzeko posibilitatea izan dezaten, ezinbestekoa da zaintza eta etxeko lanen ardura eta funtzioak emakume eta gizonen artean konpartitzea. Eta, aldi berean, bizitza familiarra, soziala eta laborala bateragarriak izan daitezen, beharrezkoa da lan eredua aldatzea eta horretarako nahitaezkoa da enpresariak sentsibilizatzea.

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| LAN MUNDUA | | MAINSTREAMING-A | | | |
| **Helburu Orokorra** | **4.1** Prestakuntza eta enplegurako zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea. | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **4.1.1** Merkatu laboralerako sarrera errazten duten zerbitzuetan genero ikuspegia aintzat hartuz jardutea ahalbidetuko duten irizpideak ezartzea. | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | |
| - Emakumeen ezaugarri, egoera eta beharrizanak kontuan hartzea erraztuko duten lan-moduak barneratzea prestakuntza eta enplegu zerbitzuetan.<br>- Udalerriko prestakuntza eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatzea dagoen eskaintza hobetuz emakumeen egungo egoerari era egokiagoan erantzuteko. | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** |
| Zerbitzu eta baliabideak | **4.1.1.1** Genero ikuspegia txertatzea ahalbidetzen duen lan-modua oinarritzat hartuz, merkatu laboralerako sarrera errazten duten erakundeen arteko koordinazio eta elkarlana sustatu. | | | | |
| Jakintza | **4.1.1.2** Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntzan genero ikuspegitik egon daitezkeen beharrizanak identifikatzea ahalbidetuko duen datu basea diseinatu eta estatistikak sortu. | | | | |
| Trebakuntza | **4.1.1.3** Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntzarekin lotutako programak genero ikuspegia kontuan hartuz egin ahal izateko trebakuntza eskaini arlo horietako arduradun eta langileei. | | | | |
| Zerbitzu eta baliabideak | **4.1.1.4** Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntza programak genero ikuspegitik diseinatu eta garatu ahal izateko aholkularitza teknikoa eskaini. | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | |
| -Enplegurako Udal Zerbitzua.<br>-Berdintasunerako Zerbitzua<br>-Arratiako Udalen Mankomunitatea<br>-EPA<br>-Gorbeialdea | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.1.1.1** | • Genero ikuspegia txertatzea ahalbidetzen duen lan-modua ezartzeko egindako koordinazio eta elkarlanerako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Bilera hauetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Bilera hauetatik sortu den ekimen kopurua. |
| **4.1.1.2** | • Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntzarako datu base eta estatistiketatik, genero ikuspegia dutenen proportzioa.<br>• Estatistika hauen bitartez enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntzan identifikatutako beharrizan eta hobekuntzen artean genero ikuspegia aintzat hartuz identifikatukoen proportzioa.<br>• Genero ikuspegia duten datu base eta estatistiken erabilgarritasunari buruz enplegurako zerbitzuko langileen asebetetze maila sexua eta karguaren arabera bereizita. |
| **4.1.1.3** | • Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntzarekin lotutako programak genero ikuspegia kontuan hartuz egin ahal izateko trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileek trebakuntza saioekiko duten asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |
| **4.1.1.4** | • Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntza programak genero ikuspegitik diseinatu eta garatzeko eskainitako aholkularitza teknikorako saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Aholkularitza tekniko saioekiko enplegurako zerbitzuko langileen asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Enplegurako orientazio, informazio eta prestakuntza jardueretatik, genero ikuspegia barneratuta dutenen proportzioa. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LAN MUNDUA | | AHALDUNTZEA | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **4.2** Emakumeen autonomia ekonomikoa indartzea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **4.2.1** Sektore industrial tradizionalean emakume eta gizonen presentzia eta parte-hartzea parekatzea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Udalerriko industria sektorean emakumeek duten parte-hartzea aztertzea.<br>- Sektore honetan etorkizunean emakume eta gizonek era parekidean eta aukera berdintasunez parte har dezaten lan-ildoak ezartzea. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11 1** | **2** | **13 1** | **4** | |
| Jakintza | **4.2.1.1** U dalerriko industria sektorean emakume eta gizonen parte-hartzearen d iagnostikoa egin, emakumeen parte hartze baxuan eragiten d uten f aktoreak i dentifikatuz eta beraien l an-baldintzak nolakoak diren ezagutuz. | | | | | |
| Sentsibilizazio eta informazioa | **4.2.1.2** Emakumeek udalerriko industria sektorean parte-hartzearen garrantziari buruzko sentsibilizazio kanpainak egin (azterketako datuak ezagutzera emanez eta kasu eredugarriak azaleratuz, besteak beste). | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Enplegurako Udal Zerbitzua.<br>-Berdintasunerako Zerbitzua<br>-Udalerriko Sindikatu Nagusiak. | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.2.1.1** | • Udalerriko industria sektorean dauden enpresetatik, emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko diagnostikoak egin dituztenen proportzioa.<br>• Diagnostikoek aztertu dituzten enpresa kopurua, langile kopuru eta sektorearen maskulinizazio mailaren arabera. |
| **4.2.1.2** | • Emakumeek udalerriko industria sektorean parte-hartzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina kopurua.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua adina, jatorria eta lanbidearen arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak sentsibilizazio kanpainaren arrakastarekiko duen pertzepzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| LAN MUNDUA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **4.2** Emakumeen autonomia ekonomikoa indartzea. |
| **Helburu zehatzak** | **4.2.2** Sektore industrial tradizionala emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun printzipioa kontuan hartuz jardutera bultzatzea. |

**Estrategiak**

- Enpresak berdintasun politikak ezartzearen beharraz sentsibilizatzea.
- Praktika eredugarriak ezagutzera ematea eta horiek indartzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Sentsibilizazio eta informazioa | **4.2.2.1** Emakumeen partaidetza urria den sektoreetan berdintasun printzipioan oinarritutako kontratazioa oztopatzen duten estereotipoak gainditzeko sentsibilizazio ekintzak egin. | | | | |
| | **4.2.2.2** Enpresetan berdintasun planak ezartzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin. | | | | |
| | **4.2.2.3** Berdintasun gaietan praktika eredugarriak burutu dituzten enpresen jarduerak ezagutzera emateko ekintzak antolatu. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasunerako Zerbitzua.
-Enplegurako Udal Zerbitzua.

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.2.2.1** | • Emakumeen partaidetza urria den sektoreetan berdintasun printzipioan oinarritutako kontratazioa oztopatzen duten estereotipoak gainditzera bideratutako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak sentsibilizazio kanpainen arrakastarekiko duen pertzepzioa. |
| **4.2.2.2** | • Enpresetan Berdintasun Planak ezartzearen garrantziaren inguruan egindako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak sentsibilizazio kanpainen arrakastarekiko duen pertzepzioa. |
| **4.2.2.3** | • Berdintasun gaietan praktika eredugarriak burutu dituzten enpresen jarduerak ezagutzera emateko egindako ekintza kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sektore industrialeko enpresetatik, ekintza hauetan parte hartu dutenen proportzioa. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LAN MUNDUA | | AHALDUNTZEA | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **4.2** Emakumeen autonomia ekonomikoa indartzea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **4.2.3** Ekonomia informalean lan egiten duten emakumeen lan-baldintzak eta dagozkien gizarte prestazioak hobetzeko bidean aurrerapausoak ematea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Lan-baldintza irregularretan ordaindutako lana egiten duten emakumeen aktibitatea azaleratzea eta errekonozimendu soziala ematea. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
| | | | **11 1** | **2** | **13 1** | **4** |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **4.2.3.1** Lan-baldintza irregularretan ordaindutako lana egiten duten emakumeen aktibitatea azaleratu eta errekonozimendu soziala emateko sentsibilizazio kanpainak egin (Etxeko Langileen Elkarteko partaideak gonbidatuz ekintzaren bat egin, informazio gidak egin eta hedatu …) | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Berdintasunerako Zerbitzua.<br>-Enplegurako Udal Zerbitzua. | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.2.3.1** | • Lan-baldintza irregularretan ordaindutako lana egiten duten emakumeen aktibitatea azaleratu eta errekonozimendu soziala emateko egindako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio kanpainen hartzaile potentzial kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Berdintasun Batzordeak sentsibilizazio kanpainen arrakastarekiko duen pertzepzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| LAN MUNDUA | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **4.3** Bizitza laboralaren, pertsonalaren eta familiarraren bateragarritasuna bultzatzea. |
| **Helburu zehatzak** | **4.3.1** Gizonen erantzunkidetasuna bultzatzea etxeko eta zaintza lanetan. |

**Estrategiak**

-Gizonek etxeko lanetan eta zaintzan duten erantzunkidetasuna sustatzeko sentsibilizazio, informazio eta trebakuntza programak garatzea.
-Aitatasun baimenen eta zaintza lizentzien inguruko kontzientziazioa bultzatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) 11 | 12 | 13 | 14 |
|---|---|---|---|---|---|
| Sentsibilizazioa eta informazioa | **4.3.1.1** "Aitatasun baimen" lizentzia zein "laguntza beharrean dauden pertsonen zaintzarako" lizentziari buruzko informazioa ezagutzera emateko ekintzak egin. | | | | |
| | **4.3.1.2** Enpresetan bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren bateragarritasunaren alde aurrera eramandako praktika eredugarriak ezagutzera emateko ekintzak burutu (azterketak, materialak, esperientziak biltzea, besteak beste). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Enplegurako Udal Zerbitzua.
-Berdintasun Zerbitzua
-Udalerriko Sindikatu Nagusiak

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.3.1.1** | • "Aitatasun baimen" lizentzia zein "laguntza beharrean dauden pertsonen zaintzarako" lizentziari buruzko informazioa ezagutzera emateko egindako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ekimen hauen hartzaile kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **4.3.1.2** | • Enpresetan bizitza laborala, familiarra eta pertsonalaren bateragarritasunaren alde burututako praktika eredugarriak ezagutzera emateko egindako ekintza kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ekintza hauetan parte hartu duen enpresa kopurua, enpresaren maskulinizazio mailaren arabera. |

| ESPARRUA | | | | | | ARDATZA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| LAN MUNDUA | | | | | | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA |
| **Helburu Orokorra** | **4.3** Bizitza laboralaren, pertsonalaren eta familiarraren bateragarritasuna bultzatzea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **4.3.2** Udaleko enplegu zerbitzuak eskaintzen dituen prestakuntza ikastaroetan emakumeen parte hartzea ahalbideratuko duten kontziliaziorako zerbitzu eta laguntzak eskaintzea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Prestakuntza ikastaroak programatzeko unean gizon eta emakumeen ordutegi eta disponibilitatea kontuan hartzea, zaintza ardurak beraien gain hartzen dituztenen eskubideak bermatzeko aurrera pausuak emanez. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **4.3.2.1** Prestakuntza ikastaroen ordutegiak eta udalerriko zaintza baliabideen ordutegiak koordinatu, behar izanez gero, zaintza zerbitzu berriak sortuz. | | | ■ | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Berdintasun Zerbitzua<br>-Enplegurako Udal Zerbitzua.<br>-Arratiako Udalen Mankomunitatea<br>-EPA | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **4.3.2.1** | • Zaintza beharrizanak betetzeko eskainitako zerbitzu eta baliabideekiko prestakuntza ikastaroetako parte hartzaileen asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita. |

## h. Gizarteratzea

### Sarrera

Gizarteratze eremuan, besteak beste, emakumeek jasaten duten gizarte bazterketaren aurka lan egingo dugu. Gizarte bazterketa dagoela diogu, pertsona edo gizarte talde batek, giza eskubideez gozatzeko aukera urraturik duenean. Batez ere, ordaindutako lanerako eskubideari egingo diogu erreferentzia, baina baita hezkuntzarako, kulturarako, osasunerako, etxebizitza duin baterako eta babes sozialerako eskubideei ere. Emakume asko bazterketa arriskuan daude eta egoera honen oinarrian, batez ere, generoaren arabera egiten den lanaren banaketa dago, banaketa horretatik sortzen den diskriminazio eta aukera falta, hain zuzen ere. Izan ere, sexuaren araberako lanaren banaketaren ondorioz, emakumeek baliabide ekonomiko, kultural zein sinbolikoak aukera berdintasunean eskuratzeko traba handiagoak aurkitzen dituzte. Emakume askok, emakume izateagatik bizi duten bazterketa egoerari, askotariko bereizkeria izenaz ezagutzen dena eransten zaio; bazterketa egoeran dauden beste gizarte taldeetako emakumeen kasuan gertatzen da hau: emakume etorkinen edota adinekoen kasuan, esaterako.

Diagnostikoaren bidez, Igorren ere fenomeno hau erreproduzitzen dela ikusi dugu. Oinarrizko Errentaren jasotzaileei buruzko datuek erakusten digute prekarietate ekonomikoan bizi direnen proportzio esanguratsua emakumezkoek osatzen dutela: hamar jasotzaileetatik zazpi emakumeak dira (%68,51a). Gertaera honetan modu nabarmenean eragiten du adin txikikoen arduradun bakarra izateak (sarritan, bikotearengandik banatzearen ondorioz) eta alarguntasun pentsio baxuak edukitzeak. Kontuan hartu behar dugu, era berean, diru-laguntza hauen jasotzaileen proportzio esanguratsua emakume etorkinak direla. Emakumeek, orokorrean, merkatu laboralerako sarreran dauzkaten oztopoei, etorkinak izateagatik aurki ditzaketen trabak gehitzen zaizkio kasu honetan. Igorreko Immigrazi-

zoari buruzko 2009ko diagnostikoak azalerazten digunez, emakume etorkinen sarrera bertako merkatu laboralera oraindik ere mugatuago dago gizonena baino: guztiz feminizatuta dauden sektore gutxi batzuetara murrizten da (garbiketa, zerbitzu pertsonalak eta pertsonal domestikoa); errekonozimendu sozial gutxikoak eta lan baldintza eskasekin.

Bestalde, udalerriko biztanleriaren zahartze prozesuan emakumeek protagonismo esanguratsua dutela adierazi digu diagnostikoak. Beraz, adinekoen beharrizan konkretuak betetzera bideratutako edozein politika edo neurrik kontuan eduki beharko du emakumeen protagonismo hau. Zahartzaroaren feminizazioa deritzonetik sortzen diren beharrizanak mendekotasuna dutenentzako laguntza eskatzen dutenak aztertzerakoan azalarazten dira, izan ere, laguntza hauek eskatzen dituztenen artean, hamarretik sei emakumeak baitira (%57,89-a). Laguntza beharra dutenen zaintzaileak ere, era berean, emakumeak dira gehien bat: 50-65 urte bitartekoak, etxekoandreak eta hezkuntza maila baxukoak batik bat. Zaintza beharrak familiak asetzen ditu oraindik, eta honek zaintzailearengan ondorio nabarmenak dituela egiaztatu dugu: zaintzaileek sarritan ondoeza daukate eta zainketa lan intentsiboaren ondorioz, osasuna kaskartzen zaie (ondoez psikologikoa eta fisikoa jasaten dute), eta isolamendua sentitzen dute.

Emakumeen aurkako indarkeria kasuei dagokionez, diagnostikoa burututako unean (2009-2010 urte bitartean), hiru emakumek denuntzia bana jarri zioten beraien bikoteari edo bikote izandakoari, indarkerian oinarritutako tratu txarrak ematearren. Nahiz eta gaur egun, Arratiako Udalen Mankomunitateko gizarte zerbitzuetatik indarkeria jasaten duten emakumeei arreta eskaintzen zaien, udalerri zein eskualde osoan, ez dago indarkeria kasuetara espresuki bideratutako baliabide espezifikorik.

Gizarteratze eta ongizatearen arloa, berdintasun politikak garatzeko eremu garrantzitsua da, honen bitartez erantzuna ematen di-

ogulako, besteak beste, genero ezberdintasunetatik sortzen diren bazterketa egoerei. Igorreko Udalak, eskualdeko beste udalekin mankomunatua du gizarteratze eta ongizateko zerbitzua Arratiako Udalen Mankomunitatea erakundean. Erakunde honek orain arte, ez du inolako berdintasun politikarik garatu; berdintasunaren inguruan egindako ekintza bakanak, bertako zenbait langilek beraien borondatez egindakoak dira. Beraz, arlo honetan, **mainstreaming** ardatzaren bitartez, Arratiako Udalen Mankomunitatean berdintasun politikak garatzeko, erakundeko partaide diren ordezkari politiko eta teknikoekin sentsibilizazio ekintzak planteatzen ditugu.

Gizarteratzean **ahalduntze** programaren bitartez, gizarteko esparru desberdinetarako sarrera oztopaturik duten emakumeen egoera eta posizioa hobetzeko neurriak proposatzen ditugu, batez ere bi eremutan. Batetik, Arratiako Mankomunitatearekin batera baliabide sozioekonomikoetarako sarrera oztopaturik daukaten emakumeekin lan eginez. Eta bestetik, Immigrazio Planarekin batera emakume etorkinen inguruan lan eginez. Emakume etorkinen egoerak eta beharrizanak zeharka ere aintzat hartuko ditugun arren, garrantzitsua dela deritzogu beraien integrazioa modu espezifikoan landuko duten neurriak aurrera eramateari.

Egun, oraindik, indarrean dagoen funtzioen eta arduren banaketak etxeko lanak eta zaintza emakumeengan delegatzen ditu. Honek, desoreka eta injustizia egoerak eragiten ditu, batez ere, emakumeengan. Esparru domestiko-familiarrean garatu behar dituzten funtzio eta ardurek era nabarmenean baldintzatzen dute emakumeek eremu publikoan duten parte hartzea (laborala, soziala zein politikoa). Beraz, ezinbestekoa da etxeko lanen eta zaintzaren balorapen sozialaren inguruko sentsibilizazioa burutzea, **erantzunkidetasuna eta kontziliazio** ardatzaren bitartez.

Emakumeen kontrako **indarkeria** adierazpen anitzeko gertaera da. Hau da, tratu txar fisikoez gain, beste era askotako indarkeria ere erabiltzen da emakumeen aurka: bortizkeria fisikoa, sexuala, ekono-

mikoa eta gizarte bortizkeria, besteak beste. Arazo honi aurre egiteko, batez ere, prebentzio eta sentsibilizazioaren arloan lan egingo dugu; garrantzitsua da herritarrak kontzientziatzea eta era honetako egoerak identifikatzen trebatzea, baina baita indarkeria kasue erantzuna emateko bideratutako baliabideez informatzea ere.

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GIZARTERATZEA | | MAISTREAMING-A | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **5.1** Genero-ikuspegia txertatzea Arratiako Udalen Mankomunitatearen jardunean. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **5.1.1** Arratiako Udalen Mankomunitatea bere jardunean genero ikuspegia txertatzeko beharrezkoak diren pausuak ematera bultzatzea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Gizarte zerbitzuen jardueran genero ikuspegia txertatzeari buruzko garrantziaz kontzientziatzea arduradun politiko eta teknikoak.<br>- Eskualdeko beste udalerrietako arduradun politikoak gizarteratze arloan berdintasunerako politika bateratuak burutzeak duen garrantziaz ohartaraztea. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **5.1.1.1** Arratiako Udalen Mankomunitatearen parte diren beste udaletako ordezkari politikoekin berdintasun politika bateratu eta koordinatuak egitearen garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazio jarduerak egin. | | | | | |
| | **5.1.1.2** Arratiako Udalen Mankomunitateko arduradun politiko eta teknikoak erakundean berdintasun politikak garatzeari buruzko garrantziaz ohartarazteko sentsibilizatzeko jarduerak egin. | | | | | |
| | **5.1.1.3** Gizarteratze eta ongizate arloan berdintasunaren inguruan burutu diren esperientzia eredugarriak ezagutzera eman. | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Udaleko Ongizate Arloa<br>-Arratiako Udalen Mankomunitatea<br>-Berdintasun Zerbitzua | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **5.1.1.1** | • Arratiako Udalen Mankomunitatearen parte diren beste udaletako ordezkari politikoekin egindako sentsibilizazio jarduera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Jarduera hauetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen jarduerekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Gizarte ongizate eta gizarteratze arloan berdintasun politika bateratuak aurrera eramateko hartutako erabaki kopurua. |
| **5.1.1.2** | • Arratiako Udalen Mankomunitateko ordezkari politiko eta teknikoekin egindako sentsibilizazio jarduera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Jarduera hauetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen jarduerekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Mankomunitatetik diseinatu edo aurrera eraman diren jardueretatik, genero ikuspegia barneratuta dutenen proportzioa. |
| **5.1.1.3** | • Gizarteratze eta ongizate arloan berdintasunaren inguruko esperientzia eredugarriak ezagutzera emateko burututako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Ekimen hauetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen ekimenekiko asebetetze maila, sexua, kargua, erakundea eta erakundearen genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| GIZARTERATZEA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **5.2** Askotariko bereizkeria jasaten duten eta gizarte bazterketa arrisku egoeran dauden emakumeen bizi baldintzak eta gizarte posizioa hobetzea. |
| **Helburu zehatzak** | **5.2.1** Euren maila sozioekonomiko eta estatus soziala dela eta, bazterketa arrisku egoeran dauden emakumeen bizi-baldintzak eta posizioa hobetzera bideratutako baliabideak beraien egoera eta beharrizanetara egokitzea. |

**Estrategiak**

- Egoera sozioekonomiko eta estatus sozialagatik bazterketa arriskuan dauden emakumeei euren eskura dauden gizarte
baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea.
- Emakume hauek gizartean duten posizioa hobetzea, horretarako beharrezkoak dituzten gaitasun sozialak indartuz.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **5.2.1.1** Euren egoera sozioekonomikoagatik, bazterketa arriskuan dauden emakumeek gizarte baliabide eta zerbitzuen (diru-laguntzak, lan-eskaintzak…) informaziorako duten sarrera erraztera bideratutako baliabideak sortu (hala nola, informazioa nola bilatu erakusteko tailerrak edo orientaziorako irteerak) | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **5.2.1.2** Egoera sozioekonomiko eta estatus sozialagatik bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako autonomia eta auto-estimu tailerrak egin. | | | | |
| Jakintza | **5.2.1.3** Bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoeraren inguruko diagnostikoa egin, bizi baldintzak, egoerak eta premiak identifikatuz, eta eskaintzen zaizkien baliabide eta laguntzen ebaluazioa burutu. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **5.2.1.4** Diagnostikoko emaitzak kontuan hartuz, beraien egoera hobetzera bideratutako programa konkretuak diseinatu eta abian jarri. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun Zerbitzua
-Udaleko Immigrazio Plana.
-Udaleko Ongizate Arloa
-Arratiako Udalen Mankomunitatea

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **5.2.1.1** | • Bazterketa arriskuan dauden emakumeei gizarte baliabide eta zerbitzuen informaziorako duten sarrera erraztera bideratuta sortutako baliabide kopurua.<br>• Baliabide hauen erabiltzaileak diren emakume kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Baliabide hauekiko emakumeen asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita. |
| **5.2.1.2** | • Egoera sozioekonomiko eta estatus sozialagatik bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako egindako autonomia eta auto-estimu tailerren iraupena (ordu kopurua) eta hauen maiztasuna.<br>• Tailer hauetan parte hartu duen emakume kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Tailerretako parte hartzaileek tailerrekiko duten asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita. |
| **5.2.1.3** | • Bazterketa arriskuan dauden emakumeen egoerari eta eskaintzen zaizkien baliabide eta laguntzei buruzko diagnostikotik identifikatutako beharrizan eta hobekuntza kopurua. |
| **5.2.1.4** | • Bazterketa arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzera bideratuta diseinatu eta abian jarritako programetatik, diagnostikoko emaitzak kontuan hartu dituztenen proportzioa. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| GIZARTERATZEA | | AHALDUNTZEA | | | |
| **Helburu Orokorra** | **5.2** Askotariko bereizkeria jasaten duten eta gizarte bazterketa arrisku egoeran dauden emakumeen baldintzak eta posizioa hobetzea. | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **5.2.2** Emakume etorkinen integrazioa ahalbidetzea. | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | |
| - Bertan bizi diren emakume etorkinen bizi baldintzak, egoera eta premiak identifikatzea, besteak beste, emakume hauen jatorria, familia egitura eta ikasketa maila kontuan hartuz.<br>- Emakume etorkinen babesgabetasun sozial eta ekonomikoa gainditzera bideratutako jarduerak burutzea. | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** |
| Baliabide eta zerbitzuak | **5.2.2.1** Emakume etorkin eta emakume taldeen arteko topaketak burutu. | | | | |
| | **5.2.2.2** Emakume etorkinei zuzendutako zerbitzu desberdinetan genero ikuspegia landu (EPA-ko proiektu eta materialetan, esaterako). | | | | |
| | **5.2.2.3** Genero identitatea eta kultura artekotasuna uztartzen dituen programak sortu emakume etorkinekin lantzeko. | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | |
| -Berdintasun Zerbitzua<br>-Udaleko Inmigrazio Plana<br>-Udaleko Ongizate Arloa<br>-Arratiako Udalen Mankomunitatea | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **5.2.2.1** | • Emakume etorkin eta emakume taldeen arteko topaketa kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Topaketa hauetan parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Topaketa hauetan parte hartu duten emakumeen asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Topaketa hauen arrakastarekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa. |
| **5.2.2.2** | • Emakume etorkinei zuzendutako zerbitzuetatik genero ikuspegia lantzen dutenen proportzioa.<br>• Zerbitzu hauetan parte hartzen duen emakume etorkin kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Emakume etorkinen zerbitzu hauekiko asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita. |
| **5.2.2.3** | • Etorkinei zuzendutako programetatik, genero identitatea eta kultura artekotasuna uztartzen dituztenen proportzioa.<br>• Programa hauetan parte hartzen duen emakume etorkin kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileek programekiko duten asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Programa hauen arrakastarekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GIZARTERATZEA | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA | | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **5.3** Gizartean zaintza lanen banaketa desorekatuak emakume askoren bizi baldintzetan duen eragin negatiboa murriztea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **5.3.1** Zaintzaren balorazio soziala bultzatzea lan honen inguruko ezaugarriak eta udalerrian gertatzen diren desoreka egoerak azaleraziz. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Zaintza lanak eta hauen ondorioak azaleratzea eta ezagutzera ematea gizartean.<br>- Zaintzaileen lana erraztea eta lan honetatik sortutako ondorio negatiboetan (osasunaren kaskartzea edota isolamendu sentimendua, adibidez) eragitea. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **5.3.1.1** Zaintza lanak gizartean duen garrantzia azaleratzeko eta zaintza lanen banaketa desorekatua salatzeko sentsibilizazio kanpainak egin (hitzaldiak, tailerrak …) | X | | | | |
| | **5.3.1.2** Dependentzia Legea azaltzeko kanpainak egin, emakume zaintzaileentzat duen eragina bereziki azpimarratuz (hitzaldiak, esku-orriak …) | | X | | | |
| Jakintza | **5.3.1.3** Udalerriko "zaintza lanen mapa" egin, laguntza beharrean dauden pertsonen egoera zein zaintzaileena beraiena aztertuz. | | | | X | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **5.3.1.4** Emakume zaintzaileen talde egonkorra bultzatu. | | | | X | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Udaleko Ongizate Arloa<br>-Arratiako Udalen Mankomunitatea<br>-Berdintasun Zerbitzua | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **5.3.1.1** | • Zaintza lanak gizartean duen garrantzia azaleratzeko eta zaintza lanen banaketa desorekatua salatzeko egindako sentsibilizazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Sentsibilizazio kanpaina hauen arrakastarekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa. |
| **5.3.1.2** | • Dependentzia Legea azaltzeko egindako informazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Informazio kanpainen hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Informazioa kanpaina hauen arrakastarekiko Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |
| **5.3.1.3** | • Udalerriko "zaintza lanen mapa"–ren bidez identifikatutako egoera eta beharrizan kopurua.<br>• Udalerriko "zaintza lanen mapa"-ren eraginkortasunarekiko Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |
| **5.3.1.4** | • Emakume zaintzaileen talde egonkorra bultzatzeko aurrera eramandako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Emakume zaintzaileen talde egonkorrean parte hartzen duen emakume kopurua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita.<br>• Emakumeek taldearekiko duten asebetetze maila, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta familia egituraren arabera bereizita. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| GIZARTERATZEA | INDARKERIA |
| **Helburu Orokorra** | **5.4** Gizarte ongizate departamentuetatik, indarkeria jasaten duten emakumeei eskainitako arreta hobetzea. |
| **Helburu zehatzak** | **5.4.1** .Indarkeria jasan duten (edo jasateko arriskuan dauden) emakumeei zuzendutako baliabideak hobetzea. |

**Estrategiak**

- Indarkeria jasan duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeentzako zerbitzuak bertaratzea.
- Indarkeria egoerei aurre egiteko dauden baliabideak ezagutzera ematea.

**Ekintzak**

| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **11 1** | **2** | **13 1** | **4** |
| Baliabide eta zerbitzuak | **5.4.1.1** Indarkeria egoeren prebentziorako eta egoera hauen identifikazio goiztiarrerako, funtsezko agente talde bat prestatu, besteak beste, udaltzainak, hezkuntza arloko, osasun zentroko eta udaletako pertsonalarekin. | | | | |
| | **5.4.1.2** Indarkeria jasan duten (edo jasateko arriskuan dauden) emakumeei zuzendutako arreta juridiko eta psikologikorako zerbitzuak ezarri. | | | | |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **5.4.1.3** Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak egin indarkeria jasaten duten emakumeei eskainitako baliabideak ezagutzera emateko (hitzaldiak, gidak …). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Udaleko Ongizate Arloa
-Arratiako Udalen Mankomunitatea

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **5.4.1.1** | • Indarkeria egoeren prebentziorako eta egoera hauen identifikazio goiztiarrerako, funtsezko agente talde bat prestatzeko burututako ekimen kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Agente talde honek burutu duen bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Agente talde honetan parte hartzen duen erakunde eta udal arloetako langile kopurua, sexua, kargua, erakundea edo saila eta erakunde edo sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.<br>• Agente talde honek identifikatutako indarkeria kasu kopurua.<br>• Agente talde honen eraginkortasunarekiko bertako parte hartzaileen asebetetze maila sexua, kargua, erakundea edo saila eta erakunde edo sailaren genero ikuspegiarekiko sentsibilitate mailaren arabera bereizita.. |
| **5.4.1.2** | • Indarkeria jasan duten emakumeei zuzendutako arreta juridiko eta psikologikorako zerbitzuak lan honi eskainitako ordu kopurua urtean.<br>• Zerbitzu hauek erabili dituen pertsona kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Zerbitzu hauen bidez prebenitu edota orientatu den indarkeri egoera kopurua. |
| **5.4.1.3** | • Indarkeria jasaten duten emakumeei eskainitako baliabideak ezagutzera emateko aurrera eramandako informazio kanpaina kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Informazio kanpaina hauen hartzaile potentzial kopurua sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Informazio kanpaina hauen arrakastarekiko Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |

# i. Hirigintza

## Sarrera

Mendebaldeko gizarteetan, industrializazio eta urbanizazio prozesuek, sistema produktibista oinarri hartzen duen ikuspegi arrazionalistaren arabera egituratutako espazio urbanoaren planifikazioa bultzatu dute. Eredu honek funtzioen araberako zonifikazioa du oinarrian: alde batetik, lan egiteko espazioak daude eta, bestetik, bizitzekoak. Planifikazio era honen ardatza homo urbanisticus-a da, alegia, bizi, lan eta desplazatu egiten den hiritarra. Zentraltasuna subjektu produktiboari ematerakoan ordea, zonifikazioak ez ditu aintzat hartzen beste subjektu guztiak (emakumeak, haurrak, adinekoak edo gaitasun murriztua daukaten pertsonak, esate baterako); ez eta, beraien beharrizan konkretuak ere. Ingurunearen ikuspegi ekonomizista aintzat hartuz, ikuspegi jasangarriagoei uko egiten diegu eta albo batera uzten ditugu bizitza eredu integralerako beharrezkoak diren beste aspektu anitz, etxeko lanei eta zaintzari lotutakoak, besteak beste.

Udalerria espazioaren antolaketa  funtzionala oinarritzat hartzen duen ereduaren arabera eratuta dago eta auzoen artean erabilpen desberdinen arteko banaketa egiten da. Eredu honek aurrez onartzen du desberdinak diren oinarrizko hiru funtzio daudela (bizilekua, lana eta aisia) eta espazioan ere bereizi egiten ditu. Honek, biztanleriaren segregazioa eragiten du, ez burutzen duten jarduera nagusiagatik soilik, baita jarduera hauei lotutako beste ezaugarri batzuengatik ere (sexua, adina eta jatorria, besteak beste). Espazio urbanoa antolatzeko eredu banatzaile honek ez du kontuan hartzen funtzioen aldi berezkotasuna eta zaildu egiten du zenbait funtzio sozial betetzea: zaintza lanak, esaterako. Errealitatearen genero araberako azterketa egiterakoan erabilera anitzeko espazioen beharrizana azaleratu zaigu, funtzioen aldi berezkotasuna ahalbidetzeko, zein biztanleria talde desberdinen arteko harremanak errazte aldera.

Hirigintzaren inguruko eztabaidetan, hala ere, ez da ohikoa gai hauek guztiak aditzera ematea. Horretan eragina izan dezake, hirigintzaren inguruan eraikita dagoen ikuspegi androzentrikoak, zeinak hirigintza esku-hartze eremu "neutrotzat" jotzen duen, genero ezberdintasunak erreproduzitu eta indartuz. Honetaz gain, emakumeek hirigintzaren inguruan dauden erabakimen espazioetan zein Udaletik antolatutako eztabaida guneetan duten parte-hartze txikiak ere eragina izan dezake. Izan ere, hirigintzari buruzko ikuspegia, gai honen inguruan dauden demandak egiteko boterea dutenek eraikitzen dute. Emakumeak eskaerak egiteko espazioetan egon ezean, nekez lortuko dugu hirigintza eredu integratzailea bultzatzea. Ezinbestekoa da beraz, hirigintzan emakumeen sarrera bermatzea eta parte-hartzea indartzea, Udalak beraien ezaugarri, egoera edota betetzen dituzten funtzioen arabera sortutako beharrizanak jaso ahal izateko.

Honegatik guztiagatik, guztiz garrantzitsua da hirigintza arloan genero ikuspegia kontuan hartzea, biztanleriaren egoera, ezaugarri eta beharrizan desberdinak aintzat hartu ahal izateko. Izan ere, adinaren, gizartean betetzen dugun funtzioaren edota gure ezaugarri fisikoen arabera, espazio bera era ezberdinean erabili, sumatu eta bizi dezakegu. Hortaz, ikuspegi integral eta inklusibotik garatutako hirigintza bultzatzeko neurri desberdinak proposatu ditugu.

**Mainstreaming** ardatzaren bitartez, Udaleko hirigintza arloan genero ikuspegia txertatzea dugu helburu, genero ezberdintasunak erreproduzitu eta indartzen dituen hirigintza eredu "neutroa" gaindituz, funtzio aniztasuna oinarritzat hartzen duen hirigintza eredu inklusibo bultzatzeko.

Horretarako, **ahalduntze** ardatzaren bidez, hirigintzari buruzko erabakimen espazioetan emakumeen eta emakume taldeen parte hartzea bultzatuko dugu, beraien pertzepzio, beharrizan eta igurikapenak aintzat hartuko dituen hirigintza eredua sustatu ahal izateko.

Halaber, espazioaren antolaketak eta udalerriko azpiegiturek ezinbesteko garrantzia dute bizitza familiarra, laborala eta pertsonalaren arteko **bateragarritasunean**. Urbanismo eredu "neutroak" (genero ikuspuntua aintzat hartu gabe diseinatutakoak) funtzioen banaketa tradizionala indartzen du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako oztopoak jarriz.

Emakumeen aurkako **indarkeria** eremu guztietan erreproduzitzen da. Hiriaren espazio antolamenduak emakumeen aurkako arrisku egoerak sor ditzake. Beraz, neurri desberdinak jarri beharko ditugu martxan arrisku egoera hauek ekiditeko, baina baita emakumeek bizi duten segurtasun ezaren pertzepzioan eragiteko ere, askatasunean oinarrituz, norbere buruaren espresio librea ahalbidetzen duen hirigintza ereduak era positiboan eragiten baitu biztanleria osoaren bizi kalitatean.

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HIRIGINTZA | MAINSTREAMING-A |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **6.1** Genero-ikuspegia txertatzea hirigintza arloan. |
| **Helburu zehatzak** | **6.1.1** Genero-ikuspegia hirigintzako proiektu eta ekintza planetan txertatzea. |

**Estrategiak**

- Hirigintza diseinuaren eta plangintzaren arduradunak, kargu politiko eta teknikoak beraien jardueran genero ikuspegia txertatzeaz jabearaztea.
- Hirigintza diseinuaren eta plangintzaren arduradunak, kargu politiko eta teknikoak beraien jardueran genero ikuspegia txertatzeko trebatzea eta orientatzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Sentsibilizazio eta informazioa | **6.1.1.1** Udaleko kargu politiko eta teknikoak, hiriaren hobekuntza, diseinu eta plangintzarekin lotutako gaietan genero-ikuspegia sartzeak duen garrantziaz sentsibilizatu. | | | | |
| Jakintza. | **6.1.1.2** Udalerriko espazioaren ordenamenduaren azterketa egin ikuspegi integratzailetik, hau da, besteak beste, generoa, etnia, jatorria edota klasea aintzat hartuko dituen ikuspegitik. | | | | |
| Trebakuntza | **6.1.1.3** Udaleko kargu politiko eta teknikoak hirigintzarekin lotutako beraien eguneroko lana genero-ikuspegitik egin dezaten trebatu (fase guztietan: diagnostikoak prestatzeko unean, plangintzetan, inplementazioan eta ebaluazioetan). | | | | |
| Araua | **6.1.1.4** Hirigintzako eztabaida eta erabakimen espazioetan genero ikuspegia landu. | | | | |
| Zerbitzu eta baliabideak | **6.1.1.5** Udalerriaren hobekuntza, diseinu eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzea ahalbidetuko duten lan-tresnak diseinatu. | | | | |
| Araua | **6.1.1.6** Beharrezko arau aldaketak egin udalerriko hirigintza plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko. | | | | |
| | **6.1.1.7** Hirigintzako proiektuak esleitzeko baremoetan genero-irizpidea jaso. | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Hirigintza Arloa
-Berdintasun Zerbitzua

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **6.1.1.1** | • Udaleko kargu politiko eta teknikoak, hiriaren hobekuntza, diseinu eta plangintzarekin lotutako gaietan genero-ikuspegia sartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeko egindako jarduera kopurua, hauen iraupena (ordu kopurura) eta maiztasuna.<br>• Bilera hauetan parte hartu duen pertsona kopurua sexua eta karguaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen sentsibilizazio jarduerekiko asebetetasun maila. |
| **6.1.1.2** | • Udalerriko espazioaren ordenamenduaren azterketaren bidez identifikatutako beharrizan eta proposamen kopurua.<br>• Azterketa honetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua, adina, jatorria, lanbidea, ikasketa maila eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Azterketa honen eraginkortasunarekiko Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |
| **6.1.1.3** | • Udaleko kargu politiko eta teknikoak hirigintzarekin lotutako beraien eguneroko lana genero-ikuspegitik egin dezaten trebatzeko saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saio hauetan parte hartu duen pertsona kopurua, sexua eta karguaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileen trebakuntzarekiko asebetetze maila, sexua eta karguaren arabera bereizita. |
| **6.1.1.4** | • Hirigintzako eztabaida eta erabakimen espazioetatik, genero ikuspegia lantzen dutenen proportzioa.<br>• Espazio hauetatik sortutako ekarpen eta proposamen kopurua. |
| **6.1.1.5** | • Udalerriaren hobekuntza, diseinu eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzea ahalbidetuko duen lan-tresna kopurua.<br>• Hirigintza arloko hobekuntza, diseinu eta planifikazioetatik, lan tresna hauei esker genero ikuspegia barneratuta dutenen proportzioa. |
| **6.1.1.6** | • Hirigintza plangintza egindako arau aldaketetatik, udalerriko genero-ikuspegia barneratzeko egindakoen proportzioa.<br>• Genero-ikuspegia barneratzeko egin diren arau aldaketekiko Berdintasun Batzordeak duen pertzepzioa. |
| **6.1.1.7** | • Hirigintza arloarekin loturiko lanetarako esleitutako enpresetatik, genero ikuspegia kontuan hartzen dutenen proportzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HIRIGINTZA | AHALDUNTZEA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **6.2** Hirigintza alorrean emakumeek duten parte-hartzea areagotzea. |
| **Helburu zehatzak** | **6.2.1** Hirigintzaren inguruan egiten diren partaidetza-prozesuetan emakume eta emakume taldeen presentzia eta parte-hartzea bermatzea. |

**Estrategiak**

- Hirigintzaren inguruko eztabaida eta erabakimen esparruetan emakume eta gizonen presentzia eta parte-hartzea orekatzea.
- Hirigintzaren inguruko eztabaida eta erabakimen esparruetan emakumeen bizipen eta ikuspegiak aintzat hartzea.
- Hirigintzaren inguruan eztabaidatu eta hirigintza ereduak definitzeko parte hartze espazio integratzaileak sortzea.
- Hirigintzaren inguruko eztabaida eta erabakimen esparruetan emakumeen posizioa indartzea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 | 12 | 13 | 14 |
| Informazio eta sentsibilizazioa | **6.2.1.1** Ezaugarri eta egoera desberdinetako emakume eta emakume taldeak, beraiek hirigintzaren inguruko partaidetza prozesuetan parte hartzeak duen garrantziaz kontzientziatu. | | X | | |
| Prestakuntza | **6.2.1.2** Emakumeei trebakuntza eskaini hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntza prozesuetan kalitatezko parte hartzea bultzatzeko. | | | X | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **6.2.1.3** Biztanleria talde desberdinek hirigintzaren inguruan dituzten eskera eta planteamenduak plazaratzeko, eztabaidarako eredu eta espazio integratzaileak sortu, bereziki emakumeen parte hartzea bultzatuz. | | | X | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Berdintasun Zerbitzua
-Hirigintza Arloa.
-Berdintasunerako Batzordea.
-Immigrazio Plana.

| Ekintza | Adierazleak |
| --- | --- |
| **6.2.1.1** | • Ezaugarri eta egoera desberdinetako emakume eta emakume taldeak, hirigintzan parte hartzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko egindako jarduera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Jarduera hauetan parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, ikasketa maila eta lanbidearen arabera bereizita.<br>• Emakumeen jarduerarekiko asebetetze maila, adina, jatorria, ikasketa maila eta lanbidearen arabera bereizita. |
| **6.2.1.2** | • Emakumeei, hirigintzaren planifikazio, diseinu eta hobekuntza prozesuetan kalitatezko parte hartzea izan dezaten, eskainitako trebakuntza saio ordu kopuru eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saio hauetan parte hartu duen emakume kopurua adina, jatorria, ikasketa maila eta lanbidearen arabera bereizita.<br>• Emakumeen trebakuntza saioekiko asebetetze maila, adina, jatorria, ikasketa maila eta lanbidearen arabera bereizita. |
| **6.2.1.3** | • Hirigintza genero ikuspegitik eta eredu integratzailea bultzatuz eztabaidatzeko sortutako espazio parte hartzaile kopurua.<br>• Espazio parte hartzaile hauetan burututako bilera kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Espazio hauetan parte hartzen duen emakume kopurua, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Espazio hauetan egiten diren proposamen eta ekarpenetatik emakumeek egindakoen proportzioa.<br>• Espazio parte hartzaile hauetatik sortu diren ekarpen eta proposamenetatik hirigintzaren ordenamendu eta planifikazioan kontutan hartu direnen proportzioa. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HIRIGINTZA | | AHALDUNTZEA | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **6.3** Emakumeek eginiko ekarpen soziala, kulturala eta historikoa azaleratzea esparru publikoan. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **6.3.1** Hiriko elementuen bidez adierazitako gizon eta emakumeen balioespen soziala parekatzea. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Hirigintzarekin lotutako elementuen izendegian genero ikuspegia txertatzea.<br>- Emakumeek udalerriko eguneroko bizitzan, gaur egun eta iraganean egindako ekarpenak ezagutzera ematea hirigintzako elementuen bidez (eraikuntza, kale eta plaza izenak zein monumentuak, besteak beste). | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** | |
| Araua | **6.3.1.1** Genero ikuspegia kontuan hartuz, kale-izendegirako izenei eta monumentuei buruzko araudia sortu eta abian jarri. | | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **6.3.1.2** Emakumeek udalerriko eguneroko bizitzan, gaur egun eta iraganean egindako ekarpenak berreskuratzeko eta azaleratzeko, emakumeei erreferentzia egiten dioten hirigintza elementuak sortu. | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Hirigintza Arloa<br>-Kultura, Euskara eta Kirol Arloa<br>-Berdintasun Zerbitzua | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **6.3.1.1** | • Genero ikuspegia kontuan hartuz, kale-izendegirako izenei eta monumentuei buruz sortutako arau kopurua.<br>• Araudia betez burututako ekimen kopurua.<br>• Araudiaren eraginkortasunarekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa |
| **6.3.1.2** | • Udalerriko hiri elementu berrietatik, emakumeei erreferentzia egiten dieten proportzioa. |

| ESPARRUA | ARDATZA |
|---|---|
| HIRIGINTZA | ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERAGARRITASUNA |

| | |
|---|---|
| **Helburu Orokorra** | **6.4** Azpiegitura publikoen bidez bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasuna erraztea. |
| **Helburu zehatzak** | **6.4.1** Azpiegitura eta espazioen antolaketa eredua bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasuna errazteko moldatzea. |

**Estrategiak**

- Hirigintza arloko pertsonal politiko eta teknikoak, espazioaren antolaketak bizitza pertsonalaren,laboralaren eta familiarraren bateragarritasunean duen eraginaz kontzientziatzea.
- Bizitza pertsonala, laborala eta familiarra bateragarri egin ahal izateko hirigintza eta espazioaren antolaketan dauden oztopoak gainditzeko pausuak ematea.

**Ekintzak**

| Lanabesa | Ekintzak | Kronograma (2011-2014) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 11 1 | 2 | 13 1 | 4 |
| Prestakuntza | **6.4.1.1** Hirigintza arloko pertsonal politiko eta teknikoak, espazioaren antolaketak bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasunean duen eraginaz kontzientziatzeko trebakuntza jarduerak egin. | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **6.4.1.2** Bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasuna errazteko aisialdi eta zaintza espazioak egokitu (parkeak, ludoteka eta 0-3 gela, besteak beste). | | | | |

**Inplikatutako sail edota erakundeak**

-Hirigintza Arloa
-Berdintasun Zerbitzua

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **6.4.1.1** | • Hirigintza arloko pertsonal politiko eta teknikoak, espazioaren antolaketak bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasunean duen eraginaz kontzientziatzeko egindako trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saio hauetako parte hartzaile kopurua sexua eta karguaren arabera bereizita.<br>• Parte hartzaileek trebakuntzarekiko duten asebetetze maila, sexua eta karguaren arabera bereizita. |
| **6.4.1.2** | • Udalerrian egokitutako baliabide, zerbitzu eta espazioetatik, bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasuna erraztera egokitutako aisialdi eta zaintza baliabide, zerbitzu eta espazioen proportzioa.<br>• Bizitza pertsonala, laborala eta familiarraren bateragarritasuna erraztera egokitutako aisialdi eta zaintza baliabide, zerbitzu eta espazioen eraginkortasunarekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa. |

| ESPARRUA | | ARDATZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HIRIGINTZA | | INDARKERIA | | | | |
| **Helburu Orokorra** | **6.5** Emakumeen segurtasunean eta segurtasun ezaren pertzepzioan eragitea. | | | | | |
| **Helburu zehatzak** | **6.5.1** Emakumeak seguru sentitzen ez diren udalerriko espazioak identifikatzea toki horiek seguruago bilakatzeko. | | | | | |
| **Estrategiak** | | | | | | |
| - Emakumeen segurtasuna arriskuan jartzen duten espazio eta egoerak identifikatzea eta horiek aldatzeko neurriak hartzea.<br>- Emakumeen arrisku egoera eragingo duen espazio berririk ez sortzeko irizpideak ezartzea.<br>- Emakumeen segurtasun pertzepzioan eragin eta arrisku egoerekiko prebentziozko jarrerak sustatzea. | | | | | | |
| **Ekintzak** | | | | | | |
| **Lanabesa** | **Ekintzak** | **Kronograma (2011-2014)** | | | | |
| | | **11** | **12** | **13** | **14** | |
| Jakintza | **6.5.1.1** Udalerriaren "mapa debekatua" egin udalerriko emakumeen laguntzarekin. | | | | | |
| Prestakuntza | **6.5.1.2** Emakumeei trebakuntza eskaini beraien segurtasun pertzepzioan eragiteko (autodefentsa ikastaroa, esaterako). | | | | | |
| Baliabide eta zerbitzuak | **6.5.1.3** Segurtasunik gabeko espaziorik ez izateko irtenbide eraginkorrak proposatu eta hauek inplementatzeko pausuak eman. | | | | | |
| Araua | **6.5.1.4** Hirigintzako udal araudian genero ikuspegian oinarrituz segurtasun irizpideak txertatu. | | | | | |
| **Inplikatutako sail edota erakundeak** | | | | | | |
| -Hirigintza Arloa<br>-Berdintasunerako Zerbitzua. | | | | | | |

| Ekintza | Adierazleak |
|---|---|
| **6.5.1.1** | • Udalerriko "mapa debekatua" burutzen parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Udalerriko "mapa debekatua"-ren bitartez identifikatutako espazio arriskutsuen kopurua.<br>• Emakumeen jarduerarekiko asebetetze maila, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **6.5.1.2** | • Emakumeen segurtasun pertzepzioan eragitea helburu duten trebakuntza saioen ordu kopurua eta hauen maiztasuna.<br>• Trebakuntza saioetan parte hartu duen emakume kopurua, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita.<br>• Emakumeen trebakuntzarekiko asebetetze maila, adina, jatorria, ikasketa maila, lanbidea eta egitura familiarraren arabera bereizita. |
| **6.5.1.3** | • Hirigintza arloan aurrera eramandako proposamenetatik, segurtasunik gabeko espaziorik ez izatera bideratutakoen proportzioa. |
| **6.5.1.4** | • Hirigintzako udal araudian txertatuko segurtasun irizpideetatik, genero ikuspegian oinarritutakoen proportzioa<br>• Udalerrian garatutako hirigintza espazioetatik, irizpide horien arabera garatutakoen proportzioa.<br>• Genero ikuspegian oinarritutako segurtasun irizpide hauekiko Berdintasun Batzordearen pertzepzioa. |

# 5.Eranskinak

# 5.1 Eranskina

| EKINTZEN PROGRAMAZIORAKO FITXA[7] | | | |
|---|---|---|---|
| **KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA** | | | |
| **Arloa:** | | | |
| **Ardatza:** | | | |
| **Programa:** | | | |
| **Helburua:** | | | |
| **EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA** | | | |
| **Enuntziatua** | | | |
| | | | |
| **Deskribapena** | | | |
| | | | |
| **Sail eta pertsona arduradunak** | | | |
| | | | |
| **Jardueraren izaera** | | | |
| **Amaitzear/Jarraituko du** | | **Urtero/aurten soilik** | |
| **Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena** | | | |
| | | | |
| **Ekintza garatzeko aurreikusitako aurrekontua** | | | |
| | | | |
| **Erakunde laguntzaileak** | | | |
| **Barnekoak** | | **Kanpokoak** | |
| **Espero diren emaitzak** | | | |
| | | | |

[7] Fitxa honek Berdintasun Planaren urtez urteko garapenari buruzko informazioa biltzeko irizpideak batzen ditu. Eudelen (2008) "Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida" –an azaltzen den ereduan oinarrituz burutu dugu.

# 5.2 Eranskina

<table>
<tr><th colspan="6">EKINTZEN JARRAIPENERAKO/BETETZE MAILAREN BALIOESPENERAKO FITXA[8]</th></tr>
<tr><th colspan="6">KOKAPENA ETA EKINTZAREN DESKRIBAPENA</th></tr>
<tr><td colspan="2">Arloa</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Ardatza:</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Programa:</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Helburua:</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><th colspan="6">EKINTZAREKIN LOTUTAKO OINARRIZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA</th></tr>
<tr><td colspan="2">Enuntziatua</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Deskribapena</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Sail eta pertsona arduradunak</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Jardueraren izaera</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">Amaitzear/Jarraituko du</td><td></td><td colspan="2">Urtero/aurten soilik</td><td></td></tr>
<tr><th colspan="6">EKINTZAREN BETETZE MAILA</th></tr>
<tr><td>Osoa</td><td></td><td>Zatika</td><td></td><td>Ezer ez</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="3">Ekintzaren hasierako hilabetea eta aurreikusitako iraupena</td><td colspan="3">Ekintzaren hasierako hilabetea eta izan duen iraupena edo jarraipena egiterakoan iraungo zuela uste zena.</td></tr>
<tr><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td colspan="3">Urteko programazio-dokumentuan ekintza garatzeko aurreikusitako aurrekontua</td><td colspan="3">Ekintza zehatzaren ustezko aurrekontua edo jarraipena egiteko uneko aurreikuspena eta gaur arte gauzatutako aurrekontu zatia</td></tr>
<tr><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td colspan="3">Espero ziren emaitzak</td><td colspan="3">Jarraipena egitean emaitza zehatzak edo ustezkoak</td></tr>
<tr><td colspan="3"></td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td colspan="6">Ekintza ezartzeko zailtasunak</td></tr>
<tr><td colspan="6"></td></tr>
<tr><td colspan="6">Ekintza burutzeko proposamenak</td></tr>
<tr><td colspan="6"></td></tr>
</table>

[8] Fitxa honek Berdintasun Planeko urtez urteko ekintzak ebaluatzeko irizpideak biltzen ditu. Eudelen (2008) "Tokiko berdintasun planak diseinatzeko, kudeatzeko eta balioesteko gida" –an azaltzen den ereduan oinarrituz burutu dugu.